

Université Bordeaux Montaigne

UFR Langues et civilisations

MEMOIRE DE MASTER ETUDES BASQUES

ALDUDE-UREPELEKO MINTZOA

Présenté et soutenu publiquement le 29 septembre 2023 par

Oier URREIZTI LAFITTE

Sous la direction de

Céline MOUNOLE

Membres du jury

- . Argia OLÇOMENDY
- . Iñaki CAMINO
- . Maitena DUHALDE
- . Céline MOUNOLE

AURKIBIDEA:

1. LABURPENA	5
2. SARRERA	6
3. KOADRO TEORIKOA	8
3.1. KOKAPEN HISTORIKO-GEOGRAFIKOA.....	8
3.2. MINTZOAREN SAILKAPENAZ.....	11
4. PROTOKOLO METODOLOGIKOA	13
4.1. LANAREN GENESIA.....	13
4.2. CORPUSA.....	14
4.3. CORPUSAREN MUGAK.....	18
4.4. CORPUSAREN AZTERKETA.....	19
5. HIZKERAREN DESKRIBAPENA	21
5.1. FONOLOGIA.....	21
5.1.1. BOKALAK.....	21
5.1.1.1. AFERESIA.....	21
5.1.1.2. SINKOPA.....	21
5.1.1.3. METATESIA.....	22
5.1.1.4. DIPTONGOAK.....	22
5.1.1.5. HIATOAK.....	23
5.1.1.6. BOKAL ASIMILAZIOAK.....	25
5.1.2. KONTSONANTEAK.....	27
5.1.2.1. HASPERENA.....	27
5.1.2.2. TXISTUKARIAK.....	27
5.1.2.3. HERSKARIAK.....	29
5.1.2.4. BOKAL ARTEKO KONTSONANTEEN ERORKETA.....	30
5.1.2.5. KATE FONIKOA.....	32
5.1.2.6. PALATALIZAZIOA.....	34
5.1.3. RR.....	35
5.1.4. ERROMANTZEEN ERAGINA.....	35
5.2. IZENAREN MORFOLOGIA.....	36
5.2.1. DATIBOA.....	36
5.2.2. EDUTE GENITIBOA.....	36
5.2.3. SOZIATIBOA.....	37
5.2.4. ADLATIBOA.....	38
5.2.5. ABLATIBOA.....	39
5.2.6. INSTRUMENTALA.....	40
5.2.7. DESTINATIBOA.....	40
5.2.8. PARTITIBOA.....	41

5.2.9. -KO ATZIZKIA.....	41
5.2.10. ERAKUSLEAK.....	41
5.2.11. IZENORDAINAK.....	41
5.2.12. DETERMINATZAILEAK.....	41
5.2.13. POSTPOSIZIOAK.....	42
5.2.14. ATZIZKIAK.....	44
5.3. ADITZAREN MORFOLOGIA.....	45
5.3.1. ADIZKI JOKATU GABEAK.....	45
5.3.1.1. -RIK / -TA.....	45
5.3.1.2. PARTIZIPIO ZAHARRAK:.....	45
5.3.1.3. LAGUNTZAILERIK GABEKO ADITZOINAREN ERABILERA.....	46
5.3.1.4. ADITZ IZENA.....	46
5.3.1.5. UKAN / IZAN.....	47
5.3.1.6. ADITZ ARAZLEAK.....	47
5.3.1.7. GEROALDIKO MORFEMA.....	48
5.3.1.8. IBARREAN ERABILTZEN DIREN ADITZ LOKUZIOAK.....	49
5.3.2. ADIZKI JOKATUAK.....	49
5.3.2.1. IZAN.....	49
5.3.2.2. *EDUN.....	50
5.3.2.3. *ERADUN.....	50
5.3.2.4. -KO DATIBO MARKA.....	51
5.3.2.5. DATIBOAREKIKO HAUTAZKO KOMUNZTADURA.....	51
5.3.2.6. *EDUN IZAN-en ORDEZ.....	51
5.3.2.7. NOR NORI NORK, NOR NORKen ordez.....	52
5.3.2.8. ADLATIBOKO ATZIZKIAK ADITZ OSAGARRIETAN.....	52
5.3.2.9. ALOKUTIBOA.....	52
5.3.2.10. ADITZ TRINKOAK.....	53
5.3.2.11. ALEGIAZKO BALDINTZAK.....	54
5.3.3. ADBERBIOAK.....	54
5.3.3.1. HANPATURIKO ADBERBIOAK.....	54
5.4. JOSKERA.....	55
5.4.1. OSAGARRI ZUZENA GENITIBOAN.....	55
5.4.2. JUNTAGAILUAK ETA LOKAILUAK.....	55
5.4.3. DENBORAZKO PERPAUSAK.....	56
5.4.4. PERPAUS OSAGARRIAK.....	58
5.4.5. PERPAUS ERLATIBOAK.....	58
5.4.6. XEDEZKO PERPAUSAK.....	59
5.4.7. KAUSAZKO PERPAUSAK.....	59
5.4.8. BALDINTZA PERPAUSAK.....	60
5.4.9. PERPAUS KONTZESIBOAK.....	60
5.4.10. KONPARAZIO PERPAUSAK.....	61

5.4.11. -A MORFEMA GALDERETAN.....	61
5.4.12. HANPATURIKO ERE.....	61
6. ONDORIOAK.....	62
6.1. EZAUGARRIEN KOKAPENA.....	62
6.2. KONKLUSIOAK.....	64
7. BIBLIOGRAFIA.....	66
8. ERANSKINAK.....	68
8.1. TRANSKRIBAPENAK.....	68

Iduritzen zaut seinale ona dela nor eskertua ukaitea. Hala bada xantza dut, jende frango baitut eskertzeko:

Milesker lanari buruz gogoetatzeko enekin elkartu, pentsaketa aritu edota lanerako lagundu nuziener: Céline, Bixente, Irulegiko irratiko ekipa, Elena, Filipe, Inhar, Gaizka, Kattalin, Xole, Elaia, Xalbat, Amaia, Mainer, Maddi, Beñat, Thomas, Maixan eta Ama.

Zerrendan ez diren anitzek ere badakite anitz lagundu nautela, bihotzetik milesker zuer!

1. LABURPENA

Aldude eta Urepele herrietako euskararen deskribapena egitea da lan honen helburu nagusia. Ikerketa monografikorik sekula egin ez zaion hizkera honi begira ezarririk, bi herrietako hamarna bat adineko hiztunen elkarrizketak aztertu eta erabili duten euskararen ezaugarriak sailkatu ditugu beren erabiltzearen zabaleraren arabera. Ezaugarriak isoglosetan kokatuz, aiseago ikus dezakegu ibarreko euskarak zein ezaugarri dituen komunean alboko hizkerekin.

2. SARRERA

“Aldude-Urepeleko mintzoa” izena duen memorio lan honetan, aipatu eremuko monografia bat egitea dugu helburu. Oraindik espezialki aztertua izan ez den Baigorriko ibarreko “gaina” ukanen dugu aztergai ikerketa honetan, eta helburua hizkera hau ahal den heinean besteekiko kokatzea litzateke. Izan ere, orain arte, Zuazok (2021) egin bezala Baigorriko ibarreko euskara aztertu izan da, baina ibar bazterrekoa guttiago.

Aipagarria da, Baxe Nafarroako hego-mendebaldeko mendialde honetan ere euskara galtzen ari dela, hiztun zaharrak pausatzen diren heinean ez baita hizkuntzaren transmisioa bermatua. Alde batetik euskara mintzo duen jendearen kopurua jausten ari da, baina horrez gain bi herrietan mintzo zen hizkeraren berezitasunak ere gero eta guttiago entzuten dira, aipatu berri dugun joerari ere jarraikiz, bistan dena. Horregatik, are beharrezkoagoa iruditzen zaigu Aldude-Urepeleko mintzoaren monografia bat egitea.

Hori gauzatzeko, alde batetik Aldude eta Urepeleko euskarari eta inguruko hizkerari buruz jada erran denean oinarritu behar gara. Beraz, ikerketako bidelagun izanen ditugu Iñaki Camino (2004), Koldo Zuazo (2021), Orreaga Ibarra (2000), eta sustut aipatu urteetan hizkuntzalari hauek eginiko lanak, hauek baitira interesatzen zaigun garaian, interesatzen zaizkigun eremuetako euskara sakonkien landu dituztenak.

Bestalde, Aldude-Urepeleko hizkera mintzo duten hiztun batzuen grabaketak lortu eta aztertzea ezinbestekoa da, ezaugarriak eta berezitasunak jasotzeko. Guk, Irulegiko irratiko garaiko emankizun baten kari ibarreko hiztun batzuei egin elkarrizketak jaso ditugu helburu horretara begira. Erran beharreak da, XX. mende hasieran sortu zen jendea aztertu dugula beraz, eta egia errateko, eremu honetako euskararen ezaugarriak aditzeko adin tarte zinez egokia dela pentsa daiteke.

Behin ezaugarriak jaso ondotik, inguruko hizkerekin konparatu eta isoglosak kokatzea izanen da gure eginkizuna. Hori azken etapa izanen da baina hori egin aitzin, besteak beste ikerketaren koadro teorikoa eta metodologiari dagozkion xehetasunak aipatzea ezinbestekoa da.

3. KOADRO TEORIKOA

3.1. KOKAPEN HISTORIKO-GEOGRAFIKOA

Aldude eta Urepeleko mintzoa aztertzeke beharrezkoa da hauen kokapen historiko geografiko eta ekonomikoa egitea, lurraldearen ezaugarriek, gertakari historikoek eta lotura sozialek etengabe eragiten baitute norbanakoaren jokamoldean, baita hizkuntzari dagokionez ere.

Bi herri hauek Ortzaize Baigorriko eskualdean kokatuak dira, eta lotura hertsia dute bien artean, baina baita Baigorriarekin ere. Gehienik soroz, basoz eta mendiz osatuak diren herri hauek, Ipar-mendebaldean Bankarekin dute muga eta hego-ekialdean Baztan, Erroibar, Esteribar, Orreaga eta Auritzekin. Gune hau Baigorritik gora heldu den bide batek trabeskatzen du, eta zentzu horretan ibarretik ateratzeko bide nagusia Urepetik pasa gabe Urkiagako lepotik pasatzen den Iruñera joateko bidea da. Urepeletik Sorogainera edo Ibañetara joateko bide ttipiagoak ere badira. Behera bidean, Bankatik Donibane Garazira joateko bidea eta Baionarantz doana aipatu behar dira. Berriki autobus linea bat pasatzen da bertatik, Baigorriarekin lotura egitea ahalbidetzen duena besteak beste.

Alduden 327 biztanle bizi da gaur egun eta izena "altu" eta "bide" hitzen elkarketaz osatua dela pentsatzen da. Ahadi eta Iturrunburu mendiek inguratzen duten herriak Baigorri du herri handi hurbilena. Hala ere, autoz 20 bat minutu behar dira batetik bestera joateko.

Aldude, ezagutzen denaren arabera, lehen aldiz XII. mendean "mendi lurralde" gisara izan zen aipatua Nafarroako artxiboan. Denborarekin, lur amankomunez osaturiko artzaintza eremu bat bilakatu zen Aldude, gehienik inguruko haran batzuetako artzainek erabiltzen ahal zutena. Bertan, hilabete batzuez bizirauteko etxolak eraikitzen bazituzten ere, debekatua zen iraunkorki

bizitza, lur amankomunak mantentzeko xedez. Nahiz eta luzaz hau errespetatu, populazioaren handitzearekin batera lurren behar materiala geroz eta handiagoa zen Baigorri eta Erroibar gisako ibarretan, presio demografiko eta garapen ekonomikoaren ondorioz.

Baigorriko familietan, Euskal Herriko ohiturari jarraikiz, zaharrenak jasotzen zuen etxaldea oinordetzan. Hortaz, kaltetak, premuak ez zirenak, sortetxetik kanpo bizirauteko aterabide bat atzematera behartuak ziren. Gainera, hazkunde demografiko geroz eta azkarragoak lurraren gaineko presioa areagotu zuen. Testuinguru horretan ziren etxeko haur batzuk familiako ustiapen unitatearen dependentzietan, hots borda delakoetan, urte osorako instalatu, azpi-unitate hauez jabetuz eta azken finean hauek sortetxeaz deslotuz. Borden autonomizatze prozesu horrek “etxe zahar” eta “etxe berrien” arteko kalapitak sustatu zituen mendeetan zehar.

Fenomeno horren erakusle Aldudeko parrokiaren sortzea izan zen. Izan ere, inguruko ibarretako kaltetak Aldudeko lur amankomun eta zatietan kolonizatzen joan ziren. Aldudeko Bailia etxeko “Esta casa es de val'derro” inskripzioa lekuko, inguruko ibarrak elkarren arteko gerra sozio-ekonomiko batean murgildu ziren, baliabide-iturri handiko eremua bereganatzeko. Oron buru Aldude Baigorriko ibarreko Donostei parrokiaren baitan integratzera joan zen, bertako erregistroetako bataiatze, ezkontza eta ehorzketa aktek erakusten diguten bezala.

Baina, parrokia hedatzen ari baldin bazen ere, baigorriarrek ez zuten begi onez ikusi beren anai-arreba ttikiak sortetxeko baliabideez eta ibarreko lur amankomunez jabetzea, ezinbesteko baliabideen galtzea zekarrelako. Hemen, azken finean, etxe zahar eta etxe berrien artean margotu zen liskarra baigorriar eta aldudarren artekoa izan zen. Premuen erantzunkizuna aldudarek erabaki guneetako parte-hartzea debekatzeko eta beste lur amankomunetarako sartzea eragoztean mamitu zen. Aldudek orduan parrokia izaera galdegin eta 1748an lortu zuen, Donosteikoaz bereiziz, nahiz eta Baigorriko ibarreko kontseiluan ez zioten sekulan jarlekurik eskaini.

Banka, berez La Fonderie deitua, prozesu berdintsu baten ondorioa izan zen, aldiz, meategiek eskaini zioten indar ekonomikoari esker zuen nukleo potente eta autonomo bat bilakatzea lortu, bere aldiaren Donostieiz bereiziz.

Hamarkadaz hamarkada tentsioa ez zen lausotu eta Frantziako Iraultzan

Aldudeko parrokia udalerrri bilakatu zelarik, Espainiako Erresumaren parte izatea galdetu zuen. Galde honen bidez, Baigorriarrei lur amankomunak erabiltzea galarazi nahi zieten, beste estatu batekoak izanik haien eskubideak galduko zituztelako. Honek ez zuen esperotako emaitzarik eman, ez baizitzaien galdea onartu. (Arvizu 1992)

Demografikoki, 1800. urtean, lehen aldiz kontatu zirelarik biztanleak udalerrri gisa, 1320 pertsona bizi ziren Alduden. Hortik landa, XIX. mende erdialdean izan zen biztanle kopuru handiena, 2885 biztanle izatera iritsiz. Orduan hasi zen gainbehera, gazte anitzek emigratu behar izan baitzuen besteak beste, gaur egun den kopurura iristeraino.

Ekonomikoki, etxaldeko autokontsumoa nagusi bazen ere, ohikoa zen laborariek mozkin batzuk saltzea edo baita ere soldatapeko lanean aritzea garai eta denbora mugatuan.

Aldudeko herria aski berria bada, Urepelekoa oraino berriagoa da, Aldudetik separatuz sortu baitzen 1862an, eliza 1841ean eraiki bazuten ere. Prozesua biziki antzekoa izan zen, nahiz eta ez zituen hainbeste talka eragin. Gaur egun 295 biztanle ditu. Hemen ere, XIX. mende erdialdean elkartu ziren biztanle gehien, baina geroztik tendentzia beherakorra izan da.

Gaur egun, aipatzekoa da bi herrietan eskolak badirela, Urepelen publikoa eta Alduden pribatua, eta biak elebidunak direla. Hortaz, haur guztiek dute lotura minimo bat euskararekin. Ekonomikoki, laborantzak toki handia izaten segitzen du, eta xerri hazkuntzak eta ardi esne gasnatzeak garrantzia handia dute, arraintegi batzuk ere badira bi herrietan. Turismoa geroz eta gehiago garatzen ari baldin bada ere, historikoki ez da turista anitz iritsi ibarrera. Erran behar dugu ere, nahiz eta gazte anitzek lanagatik edo beste arrazoin batzuegatik kostalderuntz edo Garazialdera bizitzera joan behar izan duen, ibarrarekin lotura handia mantentzen segitzen dela, baita bigarren eta hirugarren belaunaldiak direlarik ere batzuetan. Horrela, ohikoa da asteburuetan ibarrean bizi dena baino jende gehiago biltzea Urepelen edo Alduden, segur aski beste euskara bat garatu duen jendea berriz ere herrian elkartzuz.

Azkenik, Urepele eta Aldude aipatzearekin ezin genezake Kintoako eremua aipatu gabe utzi. Hori Erdi Arotik ezagutzen ditugun lur amankomunen erlikia bezala kontsidera dezakegu. Kintoa, gaur egun administratiboki mugaren alde espainiarrean kokatua den eremua, Baztan eta Erroibarren artean banatua da. Baina duen berezitasuna da, Kintoako lurak mugaren bi aldeetako laborariek erabiltzen ahal dutela. Bitan zatitua da Kintoa: iparraldeko partea iparraldeko laborariek erabiltzen ahal dute eta hegoaldekoa hegoaldekoek. Horregatik, historian zehar bi aldeetako laborarien harremana sustatu du Kintoako eremuaren antolaketak, eta oraino hala dirau. Erran gabe doa, aipatu harremanek hizkeran eragina ukan zutela, eta dutela.

3.2. MINTZOAREN SAILKAPENAZ

Aldude-Urepeleko euskara, betidanik Baigorriko ibarreko euskararekin loturik landua izan da. Louis Lucien Bonaparte Frantziako printzea, euskararen azterketari bere biziko zati bat eskaini baitzion, lehena izan zen landuko dugun eskualdeko mintzoaz zerbait erraten, Ortzaize, Baigorri, Arnegi eta Lusaide barnebiltzen zituen “Baigorriko azpieuskalkia” aipatzean. Hau, “mendebaldeko behe-nafarra” euskalkiaren zati gisa sailkatu zuen beste bi azpieuskalkiarekin: Lapurdikoa eta Aezkoa ibarrekoa. (Bonaparte 1863, 1881).

Pedro de Yrizar (1999) izan zen euskalkiez bere iritzia eman zuen ondorengoa. Berak, Bonaparteren kokapena berretsi zuen, Baigorri inguruko aditz laguntzailea “mendebaldeko Baxe-Nafarrera” izeneko euskalkiaren barnean kokatu baitzuen.

Horrez gain, azpimarratzekoa da Yrizarrek lan horretan Urepele / Aldude / Kintoa hirukotea eta Ortzaize / Bidarrai / Baigorri / Banka taldea separatuki lantzea. Izan ere, haren aditz laguntzaileari buruzko lanetan desberdintasunak atzeman zituen ikerlariak guk landuko dugun eremuaren eta Banka, Baigorri eta gaineratekoaren artean.

Euskalkien sailkatzera itzuliz, Bonaparten sailkapena berritu zuen lana Koldo Zuazorena izan zen. Lehen proposamena 1997an aurkeztu eta geroztik zehazten joan den Zuazoren euskalkien sailkapenak, besteak beste ordura arte bereizirik sailkatu ziren “lapurtera” eta “behe-nafarrera” euskalkiak, “nafar lapurtera” izeneko euskalki bakarrean batzen ditu. Zuazok, justuki, 2021ean argitaratu zuen *Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara* lanaren sartze hitzetan, honakoa dio: “2018 eta 2020 bitartean, eskualde horretan zenbait hilabete eman ondoren, Ortzaize, Baigorri eta Garaziko euskara berdintsua dela ikusi dut.” hau da, erraten du Bonapartek bereizirik sailkatu zituen “ekialdeko behe-nafarrera” eta “mendebaldeko behe-nafarrera” euskalkien arteko alderarik ez duela ikusten, ez bada Garazin “xuka” egiten dela, Baigorri ez bezala.

Iñaki Caminok, berriz, *Nafarroa Behereko euskara* (2004) tituluko lanean, Baigorriko ibarrak eta sakonkiago mendietan sartuak diren herriek Nafarroa Behereko euskararekin bat egiten ez duten zenbait ezaugarri dituztela dio (usu Nafarroa Garaiko ezaugarriekin bat egiten dutenak). Baina hori erratearekin batean, aitortzen du zaila dela jakitea desberdintasunak isolamendu geografikoari edo mugaz bestaldekoekiko harremanari zor zaien.

Ibarreko auzo diren Nafarroa Garaiko eskualdeetako euskara Aldude-Urepelen baino kinka txarragoan dela erratea ez da anitz bustitzea. Izan ere, Orreaga Ibarrek (2000) Erroibar-Esteribarreko euskarari buruz idatzi zuen lanean, aitortu zuen eskualdean ez zela kasik gehiago bertako euskararen hiztunik. Geroztik egoera ez dateke hobetu. Bonaparteren sailkapenean “hegoaldeko goi-nafarrera” zeritzon euskalkian kokatua zen hizkera, gaur egungo Zuazoren sailkapen berrituan Bortzirietatik Aezkoaraino hedatzen den “nafarrera”-ren parte da.

4. PROTOKOLO METODOLOGIKOA

Ikerketa dialektologiko hau aitzina eramateko, bereziki “Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi” Caminoren (2009) metodologian oinarritu gara. Lanaren genesitik, corpora eratu eta aztertzerainoko bidearen nondik norakoak esplikatu ditugu datozen puntuetan.

4.1. LANAREN GENESIA

Master amaierako lanarentzat hautatu dugun gaiaren iturburua, lizentziako hirugarren urtean egin behar genuen dialektologiako lan batean aurkitzen da. Ikerlan bat egin behar genuen, pertsona bat hautatu eta haren hizkera aztertuz. Xelextin Saroiberri Urepeldarra aztertzea erabaki ona izan zen, haren hizkeran berezitasun franko atzeman eta Urepeleko euskararekiko jakin-min handiagoa piztu baitzigun. Izan ere, gaztetatik entzuniko Urepele zein Aldudeko euskaldunak aditzean zerbait sendi genuelako hautatu genuen garaian lan hura Urepeldar bati buruz egitea. Gehienbat horren ondorio da ikerketa hau gauzatzearen arrazoia.

Hortik abiatuz, alde batetik, Urepele, Aldude eta Bankako euskara eta bestalde, herri hauen auzo den Nafarroa Garaiko eskualdeko mintzoa konparatzea izan zen hastapeneko ideia. Hori, eginiko ikerlan xume-xumeak Urepeleko euskara mugaz bestaldekotik hurbila izan zitekeenaren zantzuak ekarri zituelako zen.

Beraz, aipatu eskualdean ere kokatzen den mugaren inguruko ikerketa antropologiko bat egiten ari den Elena Casiriainengana joan nintzen, erabakiaz zer pentsatzen zuen galdetzeraz eta ikerketari buruzko informazio batzuk lortzeraz. Hark segidan erakutsi zidan gaiaren hautaketaren oniritzi eta sostengua, eta interesgarriak izaten ahal zitzaizkigun grabaketa batzuk ukan zitzaizkigun “LABRIT” fundazioarengana joatea aholkatu zidan. Gainera, horren ondorekin, Kintoari buruzko ikerketa bat gauzatzen ari den Filipe Bidartengana memorioaz mintzatzera joan nintzelarik, laguntzeko arrunt prest zela erran eta Elenak aipatutako fundazioaren zuzendari den Gaizka Arangurenengana

eramango ninduela segurtatu zidan. Beraz biak hara joan eta Gaizkarekin mintzatzean hura ere arrunt laguntzeko prest agertu eta aztertzeako corpus baterako sarbidea luzatu zidan.

Baina, lan aurreikuspen horiekin geundela, agian bi eskualdeak aztertu eta ondotik konparatu baino, memoria lan xume honetan bakarrean zentratzeak lan hobe bat segurta lezakeela pentsatu eta ikergaia iparraldeko hiru herrietan zedarritu genuen: Banka, Aldude eta Urepele.

Izan ere, Baigorri ez genuen sartu nahi, hiru herri hauek baino sakonkiago aztertua izan baita (Camino 2004) (Zuazo 2021), eta monografia bat egitekotan, sekula aztertua izan ez zen eskualde bati lotzea interesgarriagoa zelako.

Azkenik, oraintxe aipatu bi lan dialektologikoez gain, interesatzen zaizkigun eremuen inguruko beste hainbat lan irakurtzearekin batera, behin eta berriz Urepele / Aldude / Kintoa hirukotea elkarrekin eta Ortzaize / Bidarrai / Baigorri / Banka elkarrekin ikusi ditugu ezaugarrien banaketei dagokienez. Pedro de Yrizarrek (1999), aditz morfologiako lanetan, ibarraren zatiketa hori erabiltzen zuen bi taldeek aditza desberdinki jokatzen dutela erakusteko.

Hori izan zen Banka ikerketatik kentzeko arrazoia, denboraren diktadurak gugan jartzen zuen presioaz gain noski. Horrela, “Urepele eta Aldudeko mintzoa” izanen zen lanari lotu gintzaizkion, azkenean.

4.2. CORPUSA

Dialektologiako lan bat egitean, lehenik hiztunak hautatzea, elkarrizketatzea eta aztertzea izaten da ohiko egin-moldea. Baina gure memoria gaia lagunei zabaltzean, laster oroitarazia izan zitzaigun “Euskal Irratiek”, eta berezikiago, Argitxu Canterok grabatzen zituen “Gure arbasoak” ~1990 - ~2015 emankizunak bazirela “Irulegiko irratiko” egoitzan. Gure gairako interesgarriak izan zitezkeen hiztun batzuen elkarrizketak gordeak ziren han.

Beraz, haien bila joan eta Irulegiko irratikoek dudatu gabe lagundu gintuzten, emankizunaren artxibategira sarbidea eskainiz. Egia da, memoria batek galdegiten duen batz besteko lan kopurua neurtuz, elkarrizketak ez prestatu eta grabatu behar izateak azterketa sakonkiago egiten lagunduko zuela.

Corpusaren deskribapena egitearren, lehenik gehienak ~1990 - ~2015 artean elkarrizketatuak izan ziren XX. mende hastapenean sortu ziren pertsonak direla erratea beharrezkoa da. Anitz, gaur egun zenduak dira, eta ez du beraz haien euskara xoragarriak ibarreko haizea gehiago ferekatzen, maluroski.

Emankizun hauek hiru oren laurdeneko elkarrizketak ziren, hizkera laxoan emanak, eta guziak kontuan hartuz, agertzen ziren elkarrizketatuetatik 18 Aldudarrak, eta 19 Urepeldarrak ziren. Haien guzien artetik, herritik mugitzeagatik edo beste faktore batzuegatik hizkera ibarrekoa soilik ez zutenak baztertu ondotik, 13 Aldudar eta 11 Urepeldar hautatu genituen. Hauen mintzoa aztertzeaz gain, lizentzian egin laneko Xelextin Saroiberriren euskara ere kontuan hartu dugu datuetan. Berari dagozkionak Ahotsak.eus-eko grabaketetan oinarrituriko datuak dira.

Hautaturiko corpusaren deskribapen labur bat interesgarria izan daitekeela uste dugu, erabili ditugun datuen baliozkotasunaren aldeko argumentu gisara.

Hona hemen beraz aztertu ditugun hiztunei buruzko informazioa:

ALDUDE

Albert INDA: Aldude Sarandian 1938an sortua. 18 urtetan Ameriketara artzain joana eta 6 urte eta erdiz han egona etxera itzuli aitzin. Gasna egiteaz mintzo, Baigorriko ferian.

Antton INDA: Aldude Ponsozian 1915ean sortua. 81 urte zituen elkarrizketa egunean, eta geroztik zendu da. 1945eko gerlari buruz mintzo zaigu, 24 urteetan gerlara joan baitzen.

Ferdinand BIDAURRETA: Aldude Ximunenean (Esnazun) 1939an sortua. Ihiziaz mintzo, Aldudeko sareetan ari baitzen. Oraino Alduden bizi da.

Frantxoa BIDAURRETA: Aldude Ximunenean (Esnazun) 1942an sortua. Ferdinand-en anaia. 1964an AEBra joana, eta oraino han bizi. Gazte garaiaz mintzo zaigu.

Gratien LAXAGUE: Alduden 1904ean sortua. 95 urte eginak elkarrizketatzean, geroztik pausatua. Gerla egina, Ameriketara ibilia, eta Alduden laborantxan egona da.

Gehexan MUXIKO: Aldude Arrixiloan 1920an sortua. Laborari egona etxean 39-45 urteetako gerla denboran 5 urte preso egona Alemanian. 1986an zendua.

Lucie GOÑI: Aldude Iparrabarrean 1919an sortu zen. 88 urte zituen elkarrizketatu zutenean. Seroretan egona da, eta gaur egun zendua.

Mikel ERRAMUZPE: 1956ean Alduden sortua, Baigorriko Biletxeako zuzendaria. "Ezta musik" emankizuna, beraz ez da iraganaz soilik mintzo.

Mixel HEGI: Maestrugintzan gazte gaztetik, Aljeriako gerlan ibi zen. Horretaz aparte, beti Alduden egona. 66 urte elkarrizketa egunean, eta geroztik pausatua.

Peio SETOAIN: Aldudeko mera izana. "Ezta musik" emankizuna, beraz ez da iraganaz soilik mintzo.

Pierre ERRAMUZPE: Aldude Ezpondainian 1927an sortua. 71 urte elkarrizketa denboran, duela ez hain aspaldi pausatua. Bertsu batzuk kantatzen ditu, eta iruzkintzen.

Pilale LAXAGUE: Aldude Oihanxelaian sortua. Laborantzaz mintzo, beti ibarrean egona, gerla denboran salbu. Alemanian preso egon zen. Duela dozena bat urte joana.

Xemartin SORHONDO: Aldude mendiberrian sortua, gaur egun pausatua. Gerla bizi izan zuen hark ere, eta bere denboran hainbat lan desberdin egin zituen bizitzeko.

UREPELE

Albert ELGART: Urepele Zankaenean 1933an sortua. 64 urte elkarrizketa garaian, geroztik pausatu zen. Laboraria zen, beti Urepelen egona, salbu soldaduska garaian.

Angele HARRIET: Urepele Xokolateroenian 1926an sortua. Etxeko txokolate dendaren segida hartu zuen, herri zentroan dena. Beti ibarrean bizi izana, eta oraino bizi dena.

Erramun KOSKARAT: Urepele Masterrenian bizi, 54 urte elkarrizketa denboran. Laboraria, beti etxean egona eta dagoena, naturatik biziki hurbil bizi.

Jeanne MARTINEZ: Urepele Gauerdian 1919an sortua, eta geroztik pausatua. Beti Urepelen egona. Haur denboraz mintzo.

Jeanne TAPIA: 1909an sortua Kintoan. Kareinean bizi izana luzaz. Itsutu zen eritasun baten ondotik, eta geroztik zendua da.

Leoni AIRE: Urepele Xendarinean 1923an sortua 73 urte elkarrizketatzean. Xalbadorren emaztea, beti Urepelen egona, eta herrian bertan zendua.

Mari ANTXAÑO: Kintoan Luisenean 1914ean sortua. Elkarrizketan 83 urte, eta geroztik joana.

Mari URRIKARRIET: Urepele Gainekozinkoinean 1904ean sortua, Bokalen bizi izan zen eta hondarrean Urepelera erretiratu, eta han pausatua. 95 urte elkarrizketatzean.

Marie Therese ETXEPARE: Urepele Ilarragorrian 1926ean sortua. Baxtandarraenean mendi kaskoan bizi duela 73 urte, eta gaur egun pausatua.

Ttattin UHARRIET: Kintoa Fututenian sortua. 82 urte elkarrizketa garaian. Senarra Bankarra, baina bizi guzia Kintoan pasatua. Han pausatu zen.

Xelextin SAROIBERRI: Urepele Zinkoenean 1919an jaioa, eta han berean pausatua. Beti Urepelen egona, eta senarra ere Urepeldarra zuen.

4.3. CORPUSAREN MUGAK

Aztertu ditugun emankizunak hiru oren laurdeneko elkarrizketak dira, hizkera laxoan emanak. Dialektologiako helburuari begira, guk eginak ez diren elkarrizketak aztertzeak muga batzuk dakartzala argi da. Ez txarrak direlako, baizik eta guk nahi genukeenerako ez baitira izan zitezkeen bezain egokiak.

Alde batetik, elkarrizketak aitzinetik eginak izanik, ezin izan ditugu osoki guk finkaturiko ezaugarrien araberako hiztunak hautatu. Hala ere, honi dagokionez zinez zortea ukan dugu, tratatu dugun corpora adin aldetik aski homogeneoa baitzen, eta gainera, ibarreko euskararen (edo izan zenaren) ezaugarriak aztertzeke egokia.

Hala ere, horrek beste muga bat ekarri duela erran behar dugu. Aztertu ditugun hiztunen gehiengoa pausatua izanik, grabaketan duda baten aurrean aurkitzen ginelarik ezin izan dugu pertsonarengana informazio eske joan.

Muga larrienak, elkarrizketen gai eta testuinguruari lotuak dira. Lehenik, Argitxu Kanterok elkarrizketak egin zituen moduak eta elkarrizketak hark egin izanak berak eta ez elkarrizketatuekiko pertsona hurbilago batek, ez ditu hiztunengandik forma alokutiboak lortzeko baldintza optimoenak plantan ezarri. Horregatik, ezin izan dugu forma alokutiboei buruz idatzitakoa corpuseko datuekin argumentatu.

Horrez gain, pentsa daiteke hiztun batzuek irratiaientzat mintzo direla jakitearekin, hizkea egokitzen dutela, ahal duten heinean behintzat.

Ondotik, aditzekin jarraituz, elkarrizketatuak gehien-gehienean haien iraganaz mintzatzera eramanak izan dira, eta beraz, bereziki iraganeko aditzak lortu ditugu. Beraz, orainaldiko edo geroaldiko aise guttiago izan ditugu aztertzeke.

Aipatu behar da, “gure arbasoak” ez den beste “ezta musik” izeneko garaiko emankizun batetik hartuak direla Mikel ERRAMUZPE eta Peio SETOAIN Aldudarren elkarrizketak. Biak ere gure hiztunen adin batz bestekotik nabarmen gazteagoak dira, eta bereziki, ibarretik kanpo ere ibiliak. Baina, oren bateko emankizun hauetan, orainaldiko eta geroaldiko forma gehixeago atzeman ditugu.

Azkenik, adineko hiztunen ahotsak, edota ahoskatzeko moduak zailtzen ahal dute azterketaren zehaztasuna. Grabaketaren kalitatea ere, eragina izan dezakeen faktore bat da.

4.4. CORPUSAREN AZTERKETA

Corpus aski aberats bat bildu genuen beraz ibarreko hiztunen euskara aztertzeke. Honi segituz, azterketa egiteko erabili dugun metodologia azaltzera goaz.

Corpusa aztertzeke, lehenik, Aldudeko hiztun guziak entzun eta darabilten hizkeraren ezaugarriak agerraraziko ditugu, eta ondotik, Urepeldarrekin gauza bera eginen dugu.

Horretarako, bi maneratan jardun dugu:

- Hiztun interesgarrienen elkarrizketak transkribatu egin ditugu lehenik. Orotara, lau Aldudar eta hiru Urepeldarren elkarrizketak transkribatu ditugu (eranskinetan aurkitzen ahal dira transkribapenak).

- Beste hiztunekin, bakoitzarentzat orri bat hartu eta aipagarriak diren ezaugarriak, sailkatu ditugu.

Horrela, ezaugarri guztiak dagozkien sailetan ordenatu ditugu: 1. FONOLOGIA, 2. IZENAREN MORFOLOGIA, 3. ADITZAREN MORFOLOGIA, 4. ADBERBIOAK eta 5. JOSKERA. Datu batzuk batuagatik, lexikoa ez dugu landu, horretarako denborarik ez baitugu ukan. Hala ere, azpimarratzekoa da Zuazok (2021) hiztegi mamitsu bat aurkeztu zuela bere lanean.

Behin lana bukatu, atzeman ditugun ezaugarriak gaur egungo hiztun batzuekin partekatu ditugu, haiek emaitza horiek errealitatean entzun edo entzuten ote dituzten galdeginez. 4 Urepeldarrekin eta Aldudar batekin biltzea lortu dugu. Egia da aztertu ditugun hiztunak baino aise gazteagoak direla ikerlana burutu ondotik ikusi ditugun pertsonak, baina gazteagoak izateak informazio interesgarria ere ekar lezake.

Hori eginik, azterketa bukatzeko aurkitutako ezaugarriak isoglosaka sailkatuko ditugu, eremuka egiten diren ezaugarri multzoak sortuz. Horren helburua Aldude-Urepeleko hizkera kokatzea izanen da, ezaugarriek zein eremurekin bat egiten duten ikusiz.

5. HIZKERAREN DESKRIBAPENA

Deskribapena hasi aitzin, ohar ttipi batzuk ematea beharrezkoa da aurkitu ditugun ezaugarriak azaltzeko manera argiagoa izan dadin.

Ezaugarri bakoitzaren ondotik, grabaketetan entzun ditugun adibideak *letra etzanean* adieraziko ditugu, ‘makoen artean, hitzunak errana euskara batuan adieraziko’, eta azkenik, adibidea nork erran duen parentesien artean idatziko dugu (lehenik A(Idude) edo U(repele)ko adibide bat den erranez / Eta ondotik hitzunaren inzialak ezarriko ditugu). Aldi bakoitzean, ahal bada bi herrietako adibideak emanen ditugu argitara.

5.1. FONOLOGIA

5.1.1. BOKALAK

5.1.1.1. AFERESIA

Usaiakoak dira aferesiak, hitz hastapeneko fonemen erorketak, Alduden eta Urepelen. Entzun ditudan bi herrietako hizlariak aferesia alde bat egiten zuten, nahiz eta egin gabe ere entzun dudan bakar batzuen ahotan, bakan, bi herrien arteko desberdintasun aipagarriarik gabe. Caminok dioenez (2004: 463), aferesiak Baxe Nafarroa osoan entzun daitezke, baina Amikuzen eta Baigorriko ibarrean usaiakoak dira. Goi nafarreran ere aferesirako joera handia bada, eta ibarraren auzo diren Esteribar eta Erroibarren aferesia ausarki egiten dela erakusten du Ibarak (2000: 51).

Hauek dira entzun ditugun aferesiak:

- E galdu dutenak: *zarri* ‘ezarri’ (U/JM), *zautu* ‘ezagutu’ (U/FEB), *karri* ‘ekarri’ (A/XS), *kasu’man* ‘kasu eman’ (A/GM), *maztek* ‘emazteek’ (A/XS), *pailea* ‘epailea’ (A/MH)
- I galdu dutenak: *kusi* ‘ikusi’ (U/JT), *kasiak* ‘ikasiak’ (A/PL), *turrira* ‘iturrira’ (A/PL)

5.1.1.2. SINKOPA

Baxe Nafarroa guzian, hein ezberdinetan bada ere, sinkopak entzun daitezke (Camino 2004: 463). Gisa berean, Goi Nafarrera hegoaldean sinkopa egiteko joera nabarmena dela dio Ibarrek (2000: 50), Esteribar eta Erroibarren entzun dituen *erten* ‘erraten’, *artzen* ‘aritzen’ bezalako aditzei sinkopa egiten zaiela erakutsiz. Ereku hartan bezala, Aldude-Urepeleko hiztunak entzutean sinkopak entzutea ez zaigu arraroa izan. Hauek izan dira besteak beste entzun ditugunak:

- A galdu dutenak: *laxtu* ‘laxatu’ (U/AE), *rekupertu* ‘errekuperatu’ (A/MH), *arpatuko* ‘harrapatuko’ (U/MA), *erten* ‘erraten’ (U/MA), *paasten* ‘pasatzen’ (U/AE)
- E galdu dutenak: *abreaen* ‘aberearen’ (U/AE), *dretxo* ‘deretxo’ (A/PS)
- I galdu dutenak: *abiltate* ‘abilitate’ (U/JT), *artzen* ‘aritzen’ (U/JT), *bakzu* ‘badakizu’ (A/ANI)

5.1.1.3. METATESIA

Asistematikoak diren metatesia edo bokalen leku trukaketa gutti batzuk entzun ditugu baleako hiztunen hitzetan. Mugaz bestalde arruntak dira metatesiak, baina hitz desberdinetan egiten dira. Guk hitz hauetan entzun ditugu: *trantxare* ‘trantxera (tranchée)’ (A/XS), *gatulia* ‘katilua’ (U/EA),

5.1.1.4. DIPTONGOAK

AI diptongoa atzeman dugu NOR-NORI sailean Urepele eta Alduden /au/-ez gain /ai/ ere entzunik, baina aditz morfologian aipatuko dugu.

Alduden, *Lukainka* (A/LG) hitza bi aldiz diptongoarekin entzun izana aipagarria da, Baigorriin ‘lukinka’ bilakatu baita ‘lucanica’-tik heldu den hitza. Zuazok (2021: 27) Banka, Aldude eta Urepelen hala gorde dela dio.

AI > A: Alduden *bana* ‘baina’ (A/MH), eta *ba* ‘bai’ (A/PL) entzun dugu.

AI > E: *anea* ‘anaia’ (U/TU), eta *bateatzera* ‘bataiatzera’ (U/TU) entzun ditugu bi herrietan. Lapurdira hurbil den Nafarroa Beherearen ipar-mendebalean, hiru bokal elkaturik dauden diptongoan, i osagaia galtzen dela dio Caminok (2004: 460). Bestalde AI > E diptongoaren aldaketa bildu dugu kontsonante aitzinean: *ameka* ‘hamaika’ (U/MTE), *gaztena* ‘gaztaina’ (U/EA).

AI > I: Zuazok (2021: 27) adierazi gisara, *Izan* adizkietan (*niz* ‘naiz’; *hiz* ‘haiz’), **edin* -en subjuntibo eta aginterako adizkietan (*zite* ‘zaitez’; *diten* ‘daitezen’), NOR-NORK saileko adizkietan (*gitu* ‘gaitu’; *zitu* ‘zaitu’).

Entzun dugun *jinkoari* ‘jainkoari’ (U/MA) ere nabarmentzekoa da.

BAI(T)- aurrizkian Nafarroa Behere guzian eta Lapurdi barnekaldean egiten den AI > EI aldaketa, Baigorriko ibarrean ez dela egiten baieztatzen du Caminok (2004: 455). Guk bietarik entzun dugu hiztunenganik, ez bat besteari gailentzeko maneran.

AU diptongoa agertzen da Urepele eta Alduden erabiltzen diren *aunitz* eta *aundi* hitzetan. Gehien-gehienek diptongoa egiten dute bi hitz horietan, nahiz eta pertsona bakar batzuk gabe erraten entzun ditugun.

Zuazok (2021: 27), *aunitz* Nafarroako eremu zabalean bezala egiten dela gehitzen du.

Aipagarria da *aunditz* entzun dugula Alduden (ME).

Alkia (A/MH) entzun dugu eta ez *aulkia*.

AU > U gertatu da NOR-NORK saileko adizkietan (ikus aditzaren atala).

5.1.1.5. HIATOAK

Hiatoak aipatzean, lehenik eta behin bokalez bukatzen diren hitzak artikuluarekin elkartzean sortzen diren hiatoei so ezar gaitezen:

- E+A bukatzen diren hitzak pertsonen arabera ezberdinki ahoskatzen entzun ditugu. Usu /EA/ eta /IA/-ren arteko muga aski lausoaren

inguruan jardun dute entzundako baleako hizlariak. Euskalkietan hiato hori azkarrago edo emekiago egiteko joera denez, bi silaba behar lituzkeen hiatoa bakarrean errana entzun daiteke nun edo nun. Guk entzundakoetan, denetarik entzun izan dugu; bi silabatan, bakarrean, /EA/ zoin /IA/, batzuetan interlokutoreak IA edo EA erran duen baieztatzea zaila izan zaigu. Zuazok (2021: 26) Banka, Aldude eta Urepelen e bokala a eta e-rekin elkartzean ez dela /i/ bilakatzen erraten du bere ikerketa lanean. Erroibar-Esteribarren aldiz, -ea elkarketak usu ixtera jotzen badu ere, bitasuna agertzen dela diosku Ibarrek (2000: 47-48).

Bertako hiztunekin hau aipatzean, dudakor agertu zaizkigu, eta gehienek -ea > -ia bilakaerarik ez zutela entzuten erran digute.

- I+A bukatzen diren hitzak bi herrietan /i/-an azentu markatuarekin aditu ditugu. Gainera, ahula bada ere, kontsonante epentetikoa ere entzun dugu aldi bakan batzuetan. Hiatoa bi silabatan egiten da beraz aldi oroz, azken aitzineko silaban indarra ezarriz. Baigorriekin desberdintasun bat dakarkigu horrek, adibidez han “argia” hitza bi silabakoa baita: (ar-gja). Aldude-Urepelen hiru silabatan erraten da: (ar-gi-a), silaba aldaketa hori hitzean ezarri azentuak manatzen du, erran nahi baitu gure eskualdean /i/-an dela azentua, Baigorri aldean, aldiz, /a/-n da. Esteribar eta Eroibar aldean, kasu honetan hiatoa entzun badaiteke ere, gehienik /ja/ diptongoa egiteko joera dela adierazten digu Ibarrek (2000: 49), Baigorri bezala. Horrez gain, Baztan-Bidasoa inguruetan epentesia oraindik entzun daitekeela adierazten digu Zelaietak (2008: 158).
- O+A bukaera diptongoarekin ahozkatzen entzun dugu gehienetan, Koldo Zuazok (2021: 26) bere ikerketan atzemanduen bezala. Aldiz, Banka, Aldude eta Urepelen /o/ ondotik /a/ edo /e/ delarik bere horretan egoten dela dio Zuazok, guk bietarik entzun dugularik. Erran nahi baitu, adibidez bi silabako *ar-twa* ‘artoa’ hitza ahozkatzean, /wa/ diptongoan pertsonatik pertsonara /o/ edo /u/ aditu izan dugula.

Bidenabar, bi kasutan soilik entzun dugu /oa/>/ia/ bilakaera; Alduden *multzia* ‘multzoa’ eta Urepelen *ze zozia* ‘ze zozoa’ baina salbuespen direla pentsatzen dugu.

- U+A bukaerak beti eman du /ia/ aditu ditugun hitzunen ahoetan. Bakar bat entzun dugu behin *ostatua* erraten baina Peio Setoain herriko alkatea zen, segurrenik Aldudetik besteak baino gehiago atera den pertsona. /uia/ ere entzun dugu bi herrietan, *neuia* ‘negua’ eta *suiia* ‘sua’ hitzetan bereziki. Caminoren hitzetan (2004: 464) Aldude da silaba bat baino gehiagoko hitzetan u+a=/uia/ egiten den Baxe Nafarroako herri bakarra. Entzun dugunez, Alduden eta Urepelen ere bi silabako “negu” hitza beti bilakatzen da *neuia*. Urepeldar bati *empleuia* ere entzun diogu, baina gehienetan Baxe Nafarroa guzian bezala u+a=/ia/ egiteko joera antzeman dugu bi herrietan.
- UE > UI bilakatu da ‘batzu + ...’ aldaeretan. *Batzuitan* (U/AH eta A/LG), *batzuinak* (U/AE), *batzuindako* (U/TU) entzun ditugu, eta bakar batzuetan *batzuekin* (U/MTE). Bizkitartean, U+E elkartzean ü ere aditu dugu hitz honetan: *batzüitan* ‘batzuetan’ (U/XS eta A/ME). Halaber, I+U bokal elkarketak ere ü ekarri du adizki hauetan: *ziüzten* ‘zituzten’ (U/XS eta A/FEB), *uaiko ofizialek eiten aal ez tiüztenak* ‘oraingo ofizialeek egiten ahal ez dituztenak’ (A/MH). Hala ere, ü bokalaren agertzea bertakoekin aipatzean batzuek erran digute sekula ez zutela entzun baina beste batzuek baietz, entzuten dutela.

5.1.1.6. BOKAL ASIMILAZIOAK

Eskualdeko honetako hitzunen hitzetan bokal asimilazioak franko agertu dira. Lehenik arauzkoak diren asimilazioei so egin diezaiegun.

/ue/ > /ie/ > /ii/ asimilazioa Baxe Nafarroan hedatua da Caminok erakusten digun bezala (2004: 464-465). Asimilaziotik sortzen den /ii/ bokal luzea, *edun adizkietan agertzen da (*nuen* > *niin*), baita aditz laguntzaileari atzizkia eranstea ere (*nuelarik* > *niilaik*). Emaizta bera gertatzen da pluraleko bigarren pertsonako adizki (*duzue* > *duzii*) eta izenordainetan (*zuek* > *ziik*).

Zuazok “Baigorri eta Ortzaze ibarretako euskara” (2021) lanean egin bezala, ikerketan zehar entzun ditugun asimilazioaren ondorio izan daitezkeen hitzak zerrendatu ditugu.

a - e > a - a: *arrastaliakin* ‘arrasteiluarekin’ (U/EC), *aisa* ‘aise’ (U/EC)

a - e - a > a - a - a: *matalazak* ‘matelasak’, (U/EC)

Aldudeko hiztun gazte batek etxean *zapata* erraten dutela erran digu, iparraldean ‘zapeta’ erraten da.

e - a > a - a: *eiharak* ‘eiherak’ (U/AH)

e - a > e - e: *eremaiten* ‘eramaten’ (U/AH)

i - e > i - i: *giiletik* ‘gibeletik’ (U/AE), *aziindak* ‘aziendak’ (A/ME), *kaniita* ‘ganibeta’ (U/AH), *orriik* ‘horiek’ (U/AH)

i - u > i - i: *iziarri* ‘izugarri’ (A/XS)

o - a > o - o: *oono* ‘oraino’ (U/JM)

o - e > o - o: *botoila* ‘boteila’ (U/JT), *ooi* ‘hogei’ (U/TU)

o - e > e - e: *memento* ‘momento’ (U/JT)

Zuazok plazaratu ez dituenak:

e - a - e > e - e - e: *maexelek* ‘marexalek’ (U/AE) (Zuazok (2021: 24) ‘maraxel’ bildu eta metatesia gisa ezarri zuen hitz hau) Bertako hiztun batek ere *maaxel* erabiltzen dela erran digu.

i - a - i > i - i: *irikinaazten* ‘irakinarazten’ (U/AH)

Gehitzekoa *dana* eta *bezela* entzun ditudala bi Urepeldarren ahotan.

Horrez gain, *eili* entzun dugu alde bat ‘ibili’-ren orde. Adizki jokatu gabeez mintzatzean aipatuko dugun bezala, euskal herriko toki gehienetan egin den asimilazioa ez da egin kasu honetan.

5.1.2. KONTSONANTEAK

5.1.2.1. HASPERENA

Kontsonanteen sailean, hasperena aipatu beharra dugu. Caminoren erranetan (2004: 465-466) ozenen ondoko hasperenak eta herskari hasperendunak BN osoan badira, nahiz eta denetan ez intentsitate berarekin. Hasperena eremu honetan guttitzen ari dela gehitzen du. Koldo Zuazok berriz, “Baigorri eta Ortaize ibarretako euskara” deituriko likerketan (2021: 28) Urepelen eta Alduden hasperena adin handiko pertsonen hizkeran ere ez duela entzun dio. Guk mintzalariei hasperena, arras gutti, baina entzun izan diegu nahiz eta batzuetan hasperenarekin errandako hitz bakarrak ondotik hasperen gabe errepikatu, Caminok aipatzen duen bezala hasperena galtzen ari den seinale. Gehienik irauten duen tokietan soilik entzun dugu, erran nahi baitu hitz hastapenetan gehienbat, erakusleetan eta zenbakietan adibidez: *han* (A/GM), *horren* (A/GM), *horiik* (U/AE), *heetara* (U/AH), *hiru* (A/GM)...

Bokal arteko hasperenik ez dugu kasik entzun grabaketetan, hasperena erortzean bokal luzeak edo hiatuak atzematen ditugu haien tokian: *beauk* ‘behar duk’ (A/XS), *zaarra* ‘zaharra’ (A/XS), *inaala* ‘egin ahala’ (U/AE), *naasten* ‘nahasten’, *neore* ‘nehore’ (U/AH)...

Salbuespenak: *suhats* (supazterreko trukes, *tenailles*) (U/AE), *eihara* ‘eihera’ (U/AH), *nihaur* (A/XS), *sahetsean* (A/XS), eta *ohitzen* ‘oroitzen’ entzun dugu hainbat aldiz dardarkaria galtzearekin hasperena gelditurik.

Herskari hasperendunik aldiz ez dugu batere entzun.

5.1.2.2. TXISTUKARIAK

Txistukarien aldetik ere gauza franko dugu errateko.

Hasteko, entzun dugunez eta ondotik bertako hiztunek konfirmaturik, txistukarietako hiru sailak untsa bereizten dira. Ez da txistukari bizkarkari ‘Z’, apikari ‘S’ edota sabaikariaren ‘X’ arteko konfusiorik.

Hitz hastapenei so ezarriz, afrikatuz hasten diren hitzak arras gutti direla landu eremuan. Baxe Nafarroan orokorki hitz hasieran balean entzun dugun txistukari frikaria nagusitzen dela baieztatzen du Caminok (2004: 466). Gehien entzun dugun manierako adibide batzuk hauek dira: *xakurrak* ‘txakurrak’ (A/GL), *zuria* ‘txuria’ (U/AH), *xerri* ‘txerri’ (U/JM)... Ibarak (2000: 82) aldiz, Ekialdeko hizkeretan bezala Esteribar-Eroibar eskualdean afrikatuz hasten diren hitzak arruntak direla berresten du. Hala ere tendentzia orokor bat da hau, ‘zahar’-etik bereizteko *tzar* ‘txar’ (U/MA) egiten baita salbuespen adibide gisara.

Nabarmentzekoa da, afektibotasuna adierazteko sabaikaria erabiltzeko joera. Adibidez, Gratien Laxague mintzo zaigularik, bere zakurra lan anitz egiten duelako goraiatzean, “*xakurrak eiten’tziin*” erraten du, *xakur /x/* igurzkaritxistukari sabaikari ahoskabearekin erranez. Ondoko esaldian aldiz, urte batez izigarriko primadera txarra egin zuela eta zakurrak ezin izan zuela lan egin erraten duelarik, “*zakurrak eni ezin seituz*” entzuten diogu, *zakur /z/* igurzkaritxistukari bizkarkariaria ahoskatuz. Kasualitatea izatetik urrun, datozen adibide hauek ere froga dezakete kasu batzuetan esaldiaren edukiak forman duen eragina: *zakur aundi batzuekin* (U/MTE), *tzarra zen ta dorpea izigarri* (U/AH), *oiak eta tzarrak* ‘ogiak eta txarrak (ziren)’ (U/MA).

Ibarak (2000: 82) joera bera aurkitzen du Eroibarren, Zilbetiko hiztun batek erran zionarekin lotuz: “Txarrak direlaik erraten dugu “txakurre” ta audiek direleik “tzakurre”, tzakur aundi bat”. Gure eskualdean entzun daitezkeen “txar” (ttipi) eta “tzar” (gaizto) hitzen erran nahiek ere honekin lotura ukan dezakete. Dena dela, joera hau ezagun da Baxe Nafarroa guzian ere.

Kontsonante ahostunen aitzinean $s > /z/$ ahostuntzen dela diosku Zuazok (2021 - 29). Entzun ditugun adibideak hauek dira *ga/z/na* ‘gasna’ (A/ALI), *e/z/nia* ‘esnea’ (A/ALI), *e/z/naaxun* ‘Esnazun (Aldudeko auzo bat)’ (A/PS), *tre/z/na* (A/MH). Bestalde $ai/z/a$ ‘aise’ entzun dugu bi herrietako aho kasik guzietan.

Segitzeko, “st” eta “rtz” kontsonante taldeen arteko lehia “rtz” taldeak irabazi du entzun ditugun grabaketetan. Hala ere, bietarik entzun ahal izan dugu, pertsona beraren ahotik ere: *bertze / beste* (A/MH), *bortz / bost* (A/GL). Batzuek bi

taldeak erabiltzen bazituzten ere, bat ere ez dugu entzun “st” taldea soilik erabiltzen. Aldiz, anitzek ez dute “st” behin ere erabili.

Caminok (2004: 456-457) argi uzten du Baxe Nafarroako ekialdean “st” nagusi bada, mendebaldean eta bereziki Baigorri aldean “rtz”-ek hartzen duela gaina. Bestalde Baztan, Erroibar eta Esteribar aldean “rtz” erabiltzen dela gauza jakina da.

Berezitasun honetan sakonduz, zaila izan zaigu aipatu kontsonante taldea “rtz” edo “rz” ahoskatzen zutenetz jakiten, eta arazoa txistukari guziekikoa dela ohartuz, guttiago gertatzen bada ere s eta x frikarietara ere so ezar gaitzen. Kasu batzuetan afrikatua entzun badugu, eta afrikatu erdi-ahozkatu batzuekin duda izanagatik, r dardarkariaren ondotik gehien gehienetan frikaria entzun dugula erran dezakegu; *arzain* ‘artzain’ (A/GL), *berze* ‘bertze’ (A/XS), *borxatzen* ‘bortxatzen’ (A/GM), *arzen* ‘aritzen’ (U/MA), *persuka* ‘bertsuka’ (U/JM)...

Zuazok (2021: 33-34) honi dagokionez dioena zera da: *r* ondotik gehienetan txistukari frikaria egiten dela Baigorri ibarrean, eta *l* eta *n* ondotik guttiago baina frikaria aski ohikoa dela. Horrekin *rz* (sustut), *lz* eta *nz* kontsonante taldeen ahoskatzea Baigorriko ibarreko euskararen bereizgarri bat dela erratera heldu da.

Guk entzun dugunak, horrekin bat egiten du, eta are gehiago, bertako hiztun batekin kasu honetaz mintzatzean, argiki adierazi digu norbait “rtz” ahoskatzen entzuten badu, gaintiarra ez den seinale !

l ondotik frikaria egiten diren kasu gutti batzu entzun ere, ez dugu hortarako joera nagusirik entzun: *salzen* ‘saltzen’ (U/AH 16:25), *beltza* (U/AH 17:13), *eltzen* ‘heltzen’ (A/PL 8:27).

Zuazok erraten digu “hitz gutxi batzuetan” entzun duela frikaria *n* ondotik. Guk ere arras gutti entzun dugu *nz* kontsonante taldea: *minzatzia* ‘mintzatzea’ (A/PL), *launzen* ‘laguntzen’ (A/XS). Aise gehiago atzeman dugu *ntz*: *aantzia* ‘ahantzia’ (U/AH), *nintzen* (A/ANI)...

Azkenik, kate fonikoan gertatzen diren txistukarien bilakaerak kate fonikoari doakion atalean aipatuko ditugu.

5.1.2.3. HERSKARIAK

l edo *n* ondotik heldu direlarik herskariak ahostun gisa ahoskatzeko joera sumatu dugu. Kasu hauetan entzun dugu fenomeno hori:

- ablatiboan : *handikan* (A/ANI), *hemendikan* (A/LG). Halere, behin *hantik* (U/MTE) bildu dugu.
- *-ko* atzizkiarekin: *Urepelgo* 'Urepeleko' (A/TU), *emengo* 'hemengo' (A/XS), *hango* (A/PL), *leengo* 'lehengo' (A/ALI)...
- *franko* > *frango*: hitz honetan ahostuna entzun dugu guziengandik.

Erroibar-Esteribar eskualdean genitibo lokatiboaren eta ablatiboaren deklinabidean dagoen joera ahostuntzekoa dela erraten du Ibarrek (2000: 68-69).

5.1.2.4. BOKAL ARTEKO KONTSONANTEEN ERORKETA

Trabari igurzkarriak eta dardarkari bakuna bokalen artean galtzea Nafarroa Behere guziko fenomeno dela dio Caminok (2004: 466). Erortzearekin, bolak luzeak, diptongoak edo hiatoak sortzen dira bilakaeraren arabera. Hemen atzeman ditugun adibide batzuk:

G erortzen:

Arauzkoa da pluraleko lehen pertsonako adizkietako *-gu* > *-u* bilakatzea. Adibidez *duu* 'dugu' (A/XS), *tuu* 'ditugu' (U/AH), *etzauu* 'ez zauku' (U/AE).

-ago > *-ao* / *-au*: *leenau* 'lehenago' / *geiao* 'gehiago' (U/AH), *gutixau* 'gutixeago' / *pollikixao* 'polikixeago' (U/AE), *leenau* 'lehenago' / *berantao* 'berantago' (A/ANI), *zaarrau* 'zaharrago' / *urrunao* 'urrunago' (A/PL)

-egi > *-ei*: *ez beroei ez otzei* 'ez beroegi ez hotzegi' (U/AH)

-tegi > *-tei*: *lanteian* 'lantegian' (A/MH), *ferrateietan* 'ferrategietan' (U/AE), *lanteian* 'lantegian' (A/MH)...

Besteak beste hitz hauetan entzun dugu erorketa hau: *eina* 'egina', *iortzen* 'igortzen', *hiiatzen* 'higatzen', *nausiaen* 'nagusiaren', *nau* 'nago', *paatzen* 'pagatzen', *aian* 'agian', *iziarria* 'izigarria', *lzpei* 'lzpegi' (A/ANI), *niarrez* 'nigarrez', *gootik* 'gogotik', *gau-eun* 'gau-egun', *eon* 'egon', *zautzen* 'ezagutzen'

(A/GM), *osaarria* 'osagarria' (A/MH), *eosia* 'egosia', *launtzen* 'laguntzen' (A/XS), *sodadooa* 'soldadogoa', *ooian* 'hogoian' (U/AE), *berroei* 'berrogei' (U/AH)...

D erortzen:

ba- aurrizkiaren ondotik heldu delarik, *edun-en adizkietako hastapeneko *d* erortzen da: *baugu* 'badugu' (U/AH)

Bestalde hitz hauetan atzeman dugu *d* eroria: *eerra* 'ederra' (A/AI), *baaizu* 'badakizu', *eo* 'edo' (U/AE), *han il'nindain* 'han hil nindadin' (A/ANI), *aitu* 'aditu' (A/GM)...

Baigorriko euskararen bezala, (Zuazo 2021: 32) Aldude-Urepelen ere arauzkoa da *edun-en adizkietako, *d-* galtzea partizipioa bokalez bukatzen delarik: *zauutu'ut* 'ezagutu dut' (U/AH), *pastu'ut* 'pasatu dut' (A/ANI)...

B erortzen:

larzaal 'larzabal', *giileat* 'gibelerat' (A/XS), *eiltzen* 'ebiltzen' (U/AH), *aantza* 'abantza, aitzina' (A/ANI)

Kate fonikoan, bat eta batzuk zenbatzaileetako *b-* usu erortzen da aitzin duen hitza bokalez bukatzen delarik, Zuazok (2021: 32) baigorriko euskara deskribatuz azaltzen duen manera berean: *labe atea* 'labe batera' (A/XS), *puxka'at* 'puska bat' (U/AE), *olako atzu* 'holako batzu' (A/ANI), *erronda'atzu* 'erronda batzu' (U/AH)...

Aski zabaldua den *istan'pat* 'istant bat, un instant' (MTE) ere jaso dugu Urepelen.

R erortzen:

Bokalen artean delarik, Aldude-Urepelen dardarkari bakuna erori ohi da.

Sistematikoki,

- datibo singularrean: *-ari* > *-ai*: *itzalai* 'itzalari' (A/ANI), *beiai* 'behari' (U/AE)...

- genitibo singularrean: *-aren* > *-aen*: *harriaen* 'harriaren' (A/ANI), *aztaparraen* 'atzaparraren' (U/AE)...
- soziatibo singularrean: *-areki(la)n* > *-aeki(la)n*: *xuringoaekilan* (U/AH), *mandoaekin* 'mandoarekin' (A/XS)...
- ablatibo plural eta mugagabeen: *-(e)tarik* > *-(e)taik*: *artaik* 'hartarik' (A/XS), leemiziko *zeretaik* 'lehenbiziko zeretarik' (U/AE)...
- partitiboan: *-bokala + -rik* > *-bokala + -ik*: *pertsulariik* 'bertsularirik' (U/JM), *biziik* 'bizirik' (A/ANI), *ateratzeik* 'ateratzerik' (A/PS), *gazteik* 'gazterik' (A/MH)
- modu eta denborazko *-(e)larik* morfeman: *-(e)larik(an)* > *-(e)laik(an)*: *ginuelaikan* 'ginuelarikan' (A/ANI), *zelaik* 'zelarik' (U/AE)...
- muga adlatiboan: *-(t)arano* > *-(t)aano*: *milataano* 'militarano' (A/FEB), *pantzaano* 'pantzarano' (U/AE)...
- *-arazi* atzizkian: *-arazi* > *-aazi*: *karraazi* 'ekarrarazi' (U/AE), *joitaazten* 'joarazten'...

Ablatiboko morfeman ere usu galtzen da baina ez kasu guzietan: *-bokala + -ra(t)* > *-bokala + -a(t)* *gilleat* 'gibelerat' (A/XS), *frantziaat* 'frantziarat' (A/ANI) *biriketaa* 'biriketara' (U/AE) / *etxe txar batera* (A/XS)

Bestalde hitz hauetan ere eroria atzeman izan dugu *r*: *gerlan e* 'gerlan ere' (A/ANI), *demboa* 'denbora' (A/XS)

5.1.2.5. KATE FONIKOA

Hitz bat beste baten gibelean kokatzen delarik, elkartzen diren bi fonemek aldaketak jasaten ahal dituzte. Hortaz mintzatuko gara atal honetan.

- Hitz barneetan gertatzen den gauza berdintsua gertatzen da kate fonikoan. Nafarroa

Beherean herskaria edo urkaria eta txistukaria lotzean azken honen afrikatzea gertatzea arruta dela azpimarratzen du Caminok (2004: 466). Joera bera aezkera eta goi-nafarreran ugaria baina ez-sistematikoa dela adierazten digu

Ibarrek (2000: 85). Baigorri ibarreko euskaraz mintzo, Zuazok (2021: 34) hitz barnean bezala hitzen elkarketan ere gehienetan frikaria ahoskatzen dela baieztatzen du, afrikatua ere arrotza ez dela gehituz.

Aztertu ditugun grabaketetan, *r* ondotik gehienetan frikaria atzeman dugu: *bear zen* (U/AH eta A/PL; ALI; ANI), *jar zite* (A/GM)... / *bear tzen* (A/XS).

Biak hein berdintsuan entzun ditugu *l*-rekin bukatzen ziren hitzen ondotik: *itenal ziüztenak* (A/MH 32:32), *eoiten aal zineno* (A/ME), *trankil zaude* (A/ME), *eztazut erten aal zemat* (U/AH), *aal zintiin bezala* (U/TU) / *aita il tzelaikan* ‘aita hil zelarikan’ (U/TU), *iten aal tzaiko* ‘egiten ahal zaiko’ (U/AE).

Usu gertatzen den *n* + *txistukaria* elkarketan berriz, gehien-gehienik afrikatua entzun dugu, batzuetan frikaria ere entzun badugu ere: *erran tzaun* ‘erran zaukun’ / *emaen zauutela* ‘emanen zaukutela’ (A/GM), *kartzen ziuzten* ‘ekartzen zituzten’ / *sartzen tzen* ‘sartzen zen’ (U/AH), *iltzen ziin* ‘hiltzen zuen’ (A/XS 42:54).

- *Bait*- aurrizkiarekin elkartzen diren kontsonantez hasten diren adizkiekin zer

gertatzen den so egin dezagun:

- *bait* + *d* = *bait*-: *baita* (A/ANI), *baitute* (U/AE)...
- *bait* + *g* = *baig*-: *baiginen* (U/JM), *baigintiin* (A/ANI)...
- *bait* + *n* = *bain*-: *bainindiin* (A/ANI), *bainiin* (A/LG)...
- *bait* + *z* = *baitz*-: *baitziren* (U/TU), *baitzitin* (A/XS)...

Ez dugu “baikinen” bezalako bilakaerarik entzun ez Urepelen ez Alduden. Deigarria da *d* ahoskabetuz *t* bilakatzea, baina *g*-rekin ez gauza bera egitea.

- “Ez” hitzarekin gauza bera egin dezagun:
 - *ez* + *b* = *ezp*-: *ez paitzin* ‘ez baitzin’ (U/EC), *ez paldin bazen* ‘ez baldin bazen’ (A/MU)...
 - *ez* + *d* = *ez t*-: *ez tautut* ‘ez dauzut’ (U/AH), *ez tait* ‘ez dakit’ (A/XS)...
 - *ez* + *g* = *ez k*- / *ez g*-: *ez kintin* ‘ez ginituen’ (A/XS), *ez kinela* ‘ez ginela’ (U/LA) / *ez ginen* (U/MA), *ez giniin* (A/PS)
 - *ez* + *n* = *en*-: *eniz* ‘ez niz’ (U/MTE), *enitin* ‘ez nituen’ (A/ANI)...
 - *ez* + *z* = *etz*-: *etziin* ‘ez zuen’ (A/ALI), *etzen* ‘ez zen’ (U/LA)...

Ikusten denez, “ez”-ekin herskari guziak ahoskatu dituzte baleako hiztunek. Aipagarria hiztunen arteko hiru aldudar eta bi urepeldarrek kasu honetan ere ez dutela *g* ahoskabetzen.

Baigorriko ibarrean ere *g*-ren ahoskabetzea beti egiten ez dela entzun du Zuazok (2021: 36-37). Bestalde, aezkeraz eta erronkarieraz bezala, Erroibarko euskaran ere atzeman daitezke “ez” ondotik ahoskabetzen ez diren herskariak, nahiz eta gehienetan ahoskabeak entzuten diren egoera horretan (Ibarra 2000: 87).

- Aditz nagusia eta *edun orainaldiko adizkiak elkartzean, *-en + du = -eunt-* emaitza

entzun dugu hiru Urepeldarren ahoan: *iteunte* ‘egiten dute’ (U/ AE; EA; EC), *erosteunte* ‘erosten dute’ (U/EA), *jateunten* ‘jaten duten’ (U/EC)

Goi-nafarrerako hizkera batzuetan arrunta da fenomeno hau, eta Ibarrak (2000: 86) guk landu eskualdearen auzo diren Erroibar eta Esteribarren *-eunt-* bilakabide honekin topo egin du.

5.1.2.6. PALATALIZAZIOA

Aldudeko ibarreko palatalizazioaz mintzatzeko, lehenik erran behar da gutti entzuten dela Nafarroa Beherean, eta Baigorri are guttiago (Camino 2004: 455-456). Goi Nafarrerari dagokionez, euskalki hortan despalatalizazioa zabaldua bada ere, justu gure eskualde hegiko nafarroan bustidura batzu entzun daitezkeela baieztatzen digu Ibarrak (2000: 72).

Grabaketetan palatalizaziorik ez dugu entzun *i* ondotik: adibidez *oinez* (U/JM) ez dugu sekula bustirik entzun. Normala, lantzen dugun tokiaren inguruan nehun ere ez delarik halakorik egiten.

Maileguetan aldiz bustidura atxiki da Aldude-Urepelen ere: *arrañatu* ‘arranger’ (A/MH), *vanilla* ‘vanille’ (U/AH), *balleakoak* ‘ibarrekoak’ (A/LG)...

Guk palatalizazioa hitz bakar batzuetan errepikatzen entzun dugu: *ttipi* (U/JM), *gottortzeakin* (A/MU), *ttantta* (U/MA), *otto* (U/MTE), *pollita* (A/XS)...

Aipatu hitzak bustidura egin gabe ere entzun izan ditugu. Kasu batzuetan gauza ttipi, muñuñu edo ñiñiez mintzatzean entzun dugu bustidura, eta aurkakoa: *gero gottortzeaekin (haur ttipiak) belarreat eta guaukin eremaiten gintin (A/MU)*

Beraz, erran genezake adierazkortasunarekin loturiko bustidura egiten dela artetan, baina ez da sistematikoa.

5.1.3. RR

Dardarkari hobikaria ((*rr*), espainiarrek egiten duten maneran) ahoskatzea zein ubular modura ([R], frantsesek bezala) entzun dugu egiten.

(*rr*): Alduden: ANI, GM, XS, FEB, FRB, LG, MU, MH, PL

Urepelen: AH, EA, EC, JM, JT, LA, MA, MTE, TU, XS

[R]: Alduden: ALI, ME, PS, PE

Urepelen: AE

Guk aztertu ditugun hiztunen artean aise gehiagok egiten dute dardarkari hobikaria. Hala ere, gehienak joan den mende hasieran sorturikoak dira, eta ohartzen ahal gira frantses maneran ahoskatzen dutenak corpuseko gazteenak direla. Zuazok gaur egun Baigorriko euskara mintzo duten ezein adineko hiztunek ubularra ahoskatzen dutela dio bere lanean (2021: 30).

Aipagarria *ampulaen parrean* ‘ampoule-aren parean’ (U/AE) entzun izana, dardarkari bakunaren ordeztu hobikaria egiten baitu.

5.1.4. ERROMANTZEEN ERAGINA

Lehenik, frantsesetik jin mailegu berri anitz, eta usu frantseseko hitzak ere esaldietan sartzen entzun ditugu hiztunen ahoetan. Hauekin batera, fonema arrotz batzuk entzun ditugu:

/z/: *u/z/ina* (A/XS)

/ñ/: *kampaña* (A/ALI)

/e/: *br/e/veta* (A/GM)

/ent/: *accotément* (A/ANI)

/s/: /s/*ukria* (U/AH)

/v/: /v/*anilla* (U/AH)

/ü/: *parfüma* (U/AH), *komünionia* (U/JM)

Bestalde, frantses maileguen euskaratzeko egiten zaizkien aldaketak hauek dira:

-a Artikulua hartzen dute: *zigarreta* (A/ANI)

r- hasten diren hitzak, *err-* hasten dira: *erreximendia* 'régiment' (A/ANI)

5.2. IZENAREN MORFOLOGIA

5.2.1. DATIBOA

Singularrean *-(a)i*, eta Baxe Nafarroan zabaldua den *-er* pluraleko datibo morfema entzun ditugu. Ibarak (2000: 99) lantzen duen eremuko datiboko ohiko morfemak singularrean *-(a)i* eta pluralean *-ai* eta *-ei* direla azpimarratzen dauku. Hala ere, Erroko testuetan (Ibarra 1997a: 274) *-eri* bukaeradunak atzeman daitezkeela, eta are gehiago joan den mendeko Erroko testuetan *-er* morfema behin aurkitu dela erraiten dauku. Morfema hau ekialdeko euskalkien bereizgarria da; Luzaiden, erronkarieraz eta zubereraz agertzen zaigu, seguraski *-eri*-tik eratorria dena (Ibarra 1997: 274). Gaur egun hizkera laxoan ez da halakorik atzemaiten.

5.2.2. EDUTE GENITIBOA

Edute genitibo singularrean bokalarteko dardarkari bakuna galtzearekin, Zuazo (2021: 41) eta Camino (2004: 460-461) bat datoz Baigorriko ibarrean (Aldude eta Urepele barne) *-ain* erabiltzen dela errateko. Caminok bildu datuetan, ekialderat *-ain* diptongoa duen aldaera nagusitzen da Alduden, Baigorri,

Irisarrin, Garazin, Oztibarren, Landibarren eta Amikuzen. Aldiz, Hazparne Makea eta Lekornez gain, Bidarraik eta Aturrialdeko Bardozek eta Beskoitzek nagusiki -aan egiten dute.

Nafarroa Garaia begira, Erroibarren kasuan, edute genitibo singularra *-ain* / *-ein* egiten da (Ibarra 2000: 100).

Guk aldiz, usu ñabardura tipia bada ere, hiztunak gehienetan *-aen* ahoskatzen entzun ditugu. Egia da batzuk gutti batzuetan *-ain* ere egiten entzun ditugula, baina gehienak eta gehienetan *-aen*: *kapitainaen* ‘kapitainaren’ (A/GL), *aorrilaen* ‘agorrilaren’ (U/AE) / *larriain* ‘larruaren’ (U/AE), *lanain* ‘lanaren’ (A/MH).

Aldudeko Gehexan Mouchico izan da salbuespena, hari bietan entzun baitiogu *-aan*: *alabaan* ‘alabaren’ eta *senarraanak* ‘senarrarenak’. Urepeldar batek, *-aan* Bankarrek erraten dutela erran digu.

Zuazok (2021: 41-42) Baigorri ibarreko euskara deskribatzean erakusten duen bezala, aldaera bera gertatzen da genitibo gainean eraikitzen diren kasuetan :

- Soziatiboan: *-aekin -aekilan* / *-aikin -aikilan*: *senarraekilan* ‘senarrarekin’ (A/ANI 3:53), *tailiaekin* ‘tailuarekin’ (U/EC) / *kafiaikin* ‘kafearekin’ (A/XS 39:36) (gainera kafia egiten ta ez kafea)
Eta *-aekilako* soilik entzun dugu: *latzaekilako* ‘latzarekilako’ (A/MH)
- Motibatiboa: *-aengatik* / *-aingatik*: *goseaengatik* ‘gosearengatik’ (A/XS)
- Destinatiboa: *-aendako*: *beiaendako* ‘behiarendako’ (U/AE)
- Geroaldiko morfeman: *-anen* > *-aen*: *emaen* ‘emanen’, *izaen* ‘izanen’ (A/GM) / *joain* ‘joanen’ (A/MU), *errain* ‘erranen’ (U/AH).

Sail hauetako guzietan, genitiboko *-aen* erroa nagusitzen da entzun ditugun grabaketetan.

5.2.3. SOZIATIBOA

Aldude-Urepele herrietako XX. mendeko hiztunen ahoetan, *-kin* eta *-kilan* morfemak lehia betean atzeman ditugu. *-kilan* franko entzun badugu ere, Caminok (2004: 457) gaur egungo Baigorriko hiztunetaz mintzatzean argiki dio morfema hau bakandu dela, eta ez dela gehiago aditzen. Hala ere, Baigorritz

mintzo da eta ibarreko mendi aldean gehiago iraun duela pentsa dezakegu, baina bertako hiztunek ere, generazio desberdinen mintzoak parekatuz gero zaharrek *-kilan* aise gehiago egiten dutela diote. Mugaz bestalde ez da *-kilan* sekula entzuten, han *-aiki(n)* / *-eki(n)* egiten da (2000: 101-102).

Galtzen ari den *-kilan*-en gainean eraikia den *-kilako* (*-kiko*) entzun dugu ere alde bat: *paper latzaekilako maxina* ‘paper latzarekiko makina’ (A/MH), *oilo abilak eztu unkitzen pozoinaekilakoa* ‘oilo abilak ez du hunkitzen pozoinarekikoa’ (U/EC). Izenlagun erabilera ematen dio hitzari.

Bestalde *-o* bukatzen diren bi hitzen ondotik *-ekin* sozietibo plurala *-e-* galtzen entzun dugu: *burasokin* ‘gurasoekin’ (U/MA), *mandokin* ‘mandoekin’ (U/AH)

5.2.4. ADLATIBOA

Adlatiboari dagokionez, *-ra* eta *-rat* aditu ditugu, usu pertsona beraren ahotik ere: *kustera* ‘ikustera’ / *Urepeleat* (A/LG), *Donianea* ‘Donianera’ / *etxeat* ‘etxerat’ (U/JM). Bi herrietan ez dugu sumatu bat bestea baino gehiago erabiltzen denik.

Hala ere, azpimarratzekoa da aditz-izenean ez dugula sekula *-rat* entzun: *zazte* ‘supérieur’-aren *kustera* ‘zoazte supérieur-aren ikustera’ (A/LG), *goizik esposatzera Aldudeko elizaat* ‘goizik esposatzera Aldudeko elizara’ (A/MU), *bazkaltzera* (U/MA)...

Muga adlatiboa adierazteko (*-raino*), Ortzaize Baigorri Garazi inguruetan atzematen den *-ano* entzun dugu denen partetik: *Urepeleraano* ‘Urepeleraino’ (A/LG), *pantzaano* ‘pantzaraino’ (U/AE), *iundano* ‘egundaino’ (U/JT). Erroibarren *-raño* bustia egiten da, baina *artio* ere erabiltzen da (Ibarra 2000: 122).

Gutti batzuetan bada ere, gertatu da Aldude-Urepeleko hiztunek adlatiboaren ordeztasuna erabiltzea: *sekula ezkinela Baionan arriatuko* ‘sekula ez ginela

Baionara arribatuko' (A/GM), *arriatu ginen baionan* 'arribatu ginen Baionara' (U/XS)

5.2.5. ABLATIBOA

Aztertu ditugun hiztunek erabiltzen duten ablatiboan beste atzizki arteko lehia bat bada: *-tik / -tikan* eta *-ta(r)ik / -ta(r)ikan* aditu ditugu, baita pertsona beraren ahotik ere: *leiotikan* 'lehiotik' (A/LG), *orietaikan* 'horietatik' (U/AH) / *joaitetik* 'joatetik' (A/GL), *Eugitik* (U/AH)...

Baxe Nafarroan sendoenik *-rikan* atzizki pleonastikoa Baigorri aldean ikusten dela dio Caminok (2004: 468). Ez dugu batere Caminok EHHA-tik bildu zuen Aldudeko *-ti* atzizki zaharra entzun.

Ablatiboan agertzen den *-kan* morfema beste kasu hauetan ere entzun dugu:

- Partitiboan *-(r)ikan*: *orietaikan* 'horietarik' (U/AH), *xaarretaikan* 'zaharetarik' (A/MU)...
- Modu eta denborazko perpausetan *-la(r)ikan*: *ziilaikan* 'zuelarikan' (A/MU), *ginelaikan* 'ginelarikan' (U/MTE)...

Perpaus kontzesibo bakar batean entzun dugu: *izanaatikan* 'izanagatikan' (U/AE)

Lehenago aipatu dugun *-kilan* bezala, *-ikan* ere ibarrean desagertzen ari dela erran digute bertako batzuek. Oro har, *-kan* morfemaren erabilera jada minoritatean zen guk entzun ditugun hiztunak elkarrizketatu zirelarik, beraz pentsa dezakegu gaur egun are guttiago egiten dela, eta tendentzia horrek hala-hala segitzen duela.

Ablatiboari buruz beste ohar batzuk:

Singularrean bi aldiz entzun dugu *-a* bukatzen zen hitz baten ondotik *-ik* bukaera: *Bankaik* 'Bankatik' (U/JM), *gero ura pasatuz taulaik* 'gero hura pasatuz taulatik' (U/AH)... *-rik* ablatibo zaharraren aztarna izan daiteke. Hau Baxe Nafarroan arrunt ezezaguna da, baina Zuberoan adibidez arrunta.

Nonbaitetik pasatzeko ekintza errateko beste hizkera batzuek ablatiboa erabiltzen badute, Aldude-Urepelen inesiboa ere entzun dugu bi aldiz: *oian ixkin batian paasten ai ginelaik* ‘oihan ixkin batetik pasatzen ari ginelarik’ (A/GL), *ixkilima’at paasten giniin xilo artan* ‘ixkilima bat pasatzen ginuen xilo artarik’ (U/AE).

5.2.6. INSTRUMENTALA

Instrumentaleko atzizkia -z da. Hala ere ez dugu espero izaten ahal den aldi guziz entzun, beste posposizio batzuk entzun ditugu batzuetan: *oinez edo mandokin* ‘oinez edo mandoekin (mandoz)’, *mandotan jiten’tziren* ‘mandotan (mandoz) jiten ziren’ (U/AH), *dena ardi-ilean eina’tziin orik* ‘dena ardi-ilean (ardi-ilez) eginak ziren horiek’ (U/EC)

5.2.7. DESTINATIBOA

Baxe Nafarroan eta Esteribar / Erroibar eskualdean bezala *-dako / -tako* entzun dugu hiztunengandik: *guetako* ‘guretako’ (A/ALI), *berendako eta aurrendako* ‘berendako eta hurrendako’ (U/AH)...

Peio Setoain Aldudeko auzapez ohia soilik entzun dugu *-tzat* behin egiten, baina salbuespentzat har genezake Euskal Irratiendako erabiltzen duen euskararen ondorio izan daitekeelako. Zuazok (2021: 42) Baigorriko ibarrean gehienik *-endako*, baina *-entzat* ere entzun duela erten badu ere, guk bakarria entzun dugu. Segur aski batuak ekarri duen *-tzat* emekiago sartu da Urepelera Baigorriara baino, eta gure hiztunen garaian balean kasik ezezaguna zena gaur egun entzuten dela erran daukute bertakoek.

Prolatiboko morfemarekin arras gauza bera gertatu dela berretsi dit bertako batek. Guk grabaketetan ez dugu lortu prolatiborik entzutea.

5.2.8. PARTITIBOA

Erran bezala, partitiboan *-(r)ik* eta *-(r)ikan* aditu ditugu.

5.2.9. -KO ATZIZKIA

Adjektibo batzuei *-ko* atzizkia gehituz eginiko izenlagunak ere entzun ditugu: *izigarriko zer una emaiten dako arek* 'izigarriko zer ona ematen dako harek' (A/LG), *xarmanteko oial maa[ʒ]ina* 'xarmanteko oihal *magasin-a*' (A/MU), *gaitzeko jokoa atera'utela* 'gaitzeko jokoa atera dutela' (A/PS)

5.2.10. ERAKUSLEAK

Caminok (2004: 468-469) aipatzen duen hok/hoik/hek sistema entzun dugu erakusle pluraletan.

5.2.11. IZENORDAINAK

Nafarroa Behere osoan agertzen den pertsona izenordain hanpatuen saila (Camino 2004: 469) ardura agertzen da Aldude-Urepeleko mintzoan ere: *niauk* 'nihaurek' (A/GL), *guauk* 'guhaurek' (U/AH)...

Grabaketetan hiztunak izenordain hanpatuak zinez usu erabiltzen aditu ditugu. Batzuetan, hanpatzearen zentzurik gabe ere: *niaun senarraekin ta aurrekilan* 'ene senarrarekin eta haurrekilan' (U/TU), *niaun demboran* 'ene denboran' (U/JM)...

5.2.12. DETERMINATZAILEAK

Pluraleko zenbatzaile zehaztugabearen absolutiboko forma *batzu* da Baxe Nafarroa guzian (Camino 2004: 469), baleako hiztunei entzun diegun bezala: *xirio firurikatu batzu* ‘kandela itzulikatu batzuk’ (U/AH), *billeta tzar batzu* ‘billete tzar batzuk’ (U/MA)...

Ibar honetan ere izenordain zehaztugabea izateaz gain, determinatzailea ere bada *zeit /zeait* = ‘zerbait’, eta Baxe Nafarroa osoan bezala izenaren eskuinean edo ezkerrean ager daiteke (Camino 2004: 476) : *ta berzalde berze hektara zeit bazen* ‘ta bestalde beste hektara zerbait bazen’ (A/PL), *baldin bazinin zeait arrazoin* ‘baldin bazinin zerbait arrazoi’(A/FER), *punizione zeait* ‘punizione zerbait’ (U/MTE).

Erroibar eta Esteribarko euskaran ere entzun daiteke ezaugarri hau, *zerbait* ahozkatu (Ibarra 2000: 139).

Aztertu ditugun hiztunen partetik -a artikulua erabilera berezia entzun dugu: *anai bat* ‘anaia bat’ (U/JT), *makila ttipi bat* ‘makil ttipi bat’ (U/LA), *etzen botik* ‘ez zen botarik (*bottes*)’ (U/MA)...

Horrez gain, iparraldean entzuten ahal den bezala, ekintza bat adierazteko partizipioa aitzin den izena mugagabeen utzia atzeman dugu: *bele izitzeko* (U/EC).

Bestalde, *denak* hitza mugatuan erabiltzen entzun dugu zentzu mugagabearekin: *denak kasten’tziren* ‘denak (gauza guziak) ikasten ziren’, *erakusten’tzaan denetan* ‘erakusten zidan denetan (gauza guziak egiten)’ (A/LG), *kanbio dira ba bidiak eta denak* ‘aldatu dira bai bideak eta denak’ (U/TU), *denetan aizana niz* ‘denetan (lanbide guzietan) aritu izana naiz’.

5.2.13. POSTPOSIZIOAK

Aztertu ditugun grabaketetan ‘ordez’ erran nahia duen postposizioa lau aldiz soilik entzun dugu. Alduden, bi aldiz *plazan* (‘à la place de’ frantsesetik jina): *jar zite ene plazan* ‘jar zaitenez ene ordez’ (A/GM), *zuuia artzeko plazan* ‘zubia

hartzeko orde^z (A/MU) eta behin *partez* entzun ditugu: *teoriak eiteko partez* ‘teoriak egin orde^z’ (A/ME). Urepelen behin soilik entzun dugu: *berze irin batzu zerrier emaiteko oriin partez* ‘beste irin batzuk zerriei emateko horien orde^z’ (U/JM). Baxe Nafarroan *orde* biziki zabaldua da, eta Baigorri herrian berriz *partez* gehiago erabiltzen da (Camino 2004: 470-471). Orreaga Ibarrek bere eskualdean *partez* ere egiten dela dio (2000: 141).

Aldudarrek “plazan” egitea aipatzearekin, hiztun Urepeldar batek Aldudarrak holako besterik egiten entzuten dituela adierazi digu. Adibidez, “bagaza oinez” erran orde^z “bagaza à pied” erraten dutela batzuek. Guk Aldudar bati justuki, *sartu’inen “à pied”* ‘sartu ginen oinez’ (A/GM) entzun diogu, eta baita Urepeldar bati ere. Hori entzutearekin, Aldudar gazte batek “zaharrek frantsesa badakitela erakusteko esaldietan frantseseko hitzak sartzen dituztela” iduritzen zaiola gehitu du.

Norabidea adierazteko, ‘buruz’ hitzarekin kasik beti datiboa entzun dugu: *gela finitzeai buruz jin ziren* ‘gela finitzeari buruz jin ziren’ (A/MH), *lepoai buruz joan ziten* ‘lepoari buruz joan zitezen’ (A/FEB)...

Hala ere, behin “-ra buruz” aditu dugu: *saretara buruz* (A/FEB)

-ren buruan ezagun da baleako hizkeran: *esposatu ta zorzi urteen burian* ‘esposatu eta zortzi urteren buruan’ (U/JT), *ta gero berrooi eunen burin* ‘eta gero berrogei egunen buruan’ (A/GM)... Forma hau Erroibarren ere entzun daiteke (Ibarra 2000: 141).

Zentzu bera duten aldaera hauek ere agertu dira, pertsona beraren ahotik: *hooitalau oren barne ezpaginen handik kentzen* ‘hogeita lau orenen buruan ezpaginen handik kentzen’, *hor ilaete’aten buruko* ‘hor hilabete baten buruan’ (A/GL).

Hiztunek, normala den bezala ‘(e)ta gero’ erabili dute alde bat kontaktetan esaldien arteko loturak egiteko. Horrez gain, zentzu bera duten beste hiru posposizio agertu dira grabaketetan:

- *-tik landa* : *mezatik landa* (U/JT), *hantik landa seroretan ouvroir-ean erailtzen ginen* (U/MTE)

- *ondoan* entzun dugu izenaren ondotik : *pilota partida ondoan* ‘pilota partida eta gero’ (A/LG), *bero ondoan* ‘beroa eta gero’ (U/AH), *gerr’ondoan* ‘gerra eta gero’ (U/JT), *eskola ondoan* ‘eskola eta gero’ (U/MA)
- *eta* aditz partizipioaren gibeletik : *dantzan aizan’ta* ‘dantzan ari izan eta’ (A/LG)

5.2.14. ATZIZKIAK

Hauek dira bildu ditugun eratorpen atzizki batzuk:

Ttipigarriak:

- -XE / -XET: *olaxe ‘holaxe’* (A/EA); *ementxe ‘hementxe’* (LA).
- -XEAGO: *geroxau hasi zen ‘geroxeago hasi zen’* (U/LA).
- -XKO: *kontenxko* (U/AH).
- -TO: (bakarrik neska hitzean entzun dugu) *zazpi neskato baginen erailtzen ginenak beti elgarrekin* ‘zazpi neskato ginen, ibiltzen ginenak beti elkarrekin’ (A/LG), *ban’tzen neskato baionat* ‘joan zen neskato (“neskame” zentzuarekin) Baionara” (U/TU).
- -ÑO: *olaxeño ‘holaxeño’* (A/LG); *xaarñoat bazen* ‘xaharño bat bazen’ (U/MA).

Besteak:

- -(T)AR: *eztakit nungotarra’tiren* ‘ez dakit nungotarrak diren’ (A/ME), *bankar* (U/AH), *urepeldarra* (U/MA).
- -GARREN: *seigarrena* (U/JM)
- -GO: *soldadooa* ‘soldadogoa’ (U/AE)
- -IK: *ortozik joaiten ginen* ‘ortozik joaten ginen’ (U/LA)
- -(Z)KA: *banazka-banazka-banazka* *pleatzen’tziren* ‘banaka-banaka-banaka pleatzen (tolesten) ziren’ (A/LG) *dentelle-a paketaka* ‘*dentelle*-a paketeka’ (U/MA). *persuka* ‘bertsuka’ (U/JM), *bear zen gordeka ari dantzan* ‘behar zen gordeka aritu dantzan’ (U/LA).
- -KI: *iandetan partikularzki* ‘igandetan bereziki’ (U/JT), *preseski* (U/LA).

- -NA: *eztauzut erten aal zematna* ‘ez dizut erraten ahal zenbatna’ (U/AH).
- -(T)SA: *emaintsak* ‘emagintsak’ (A/LG)
- -(T)ZALE: *ura zen abere estimatzalia* ‘hura zen abere estimatzailea’ (A/XS)
- -ZAIN: *eiarazaina* (U/MTE)
- -ZKO: *kobrezko alimaleko untzi batzu bagintiin* ‘kobrezko alimaleko ontzi batzuk genituen’ (U/AH), *pilota eiten’tziin ile-arizkoa* ‘pilota egiten zuen ile-harizkoa’ (U/EC).

Baigorriin -xe gorde dela, ez dela -xet berrikuntza entzuten dio Caminok (2004: 458). Gisa berean, Baigorriin -keta entzun daitekeela dio, ekialdeko bilaketako -ka atzizkia ezezagun delarik.

5.3. ADITZAREN MORFOLOGIA

5.3.1. ADIZKI JOKATU GABEAK

5.3.1.1. -RIK / -TA

Modua adierazteko -(r)ik atzizkia entzun dugu: *uzten tziren gakatuik* ‘uzten ziren gakoturik’ (A/ALI), *burraekilan einikako krema’at* ‘burrarekilan eginikako krema bat’ (U/AH), *baatxuria eosaaziik eman dut* ‘baratxuria egosarazirik eman dut’ (A/LG)...

Caminok (2004: 470) dio -ta atzizki berria ere Nafarroa Behere osoan adi daitekeela, baina guk ez dugu halakorik kasik entzun, hau izan da bakarra: *bizkarren hartuta zakiak* ‘bizkarrean hartuta zakuak (A/ALI).

Gertatu zaigu -ta- entzutea, baina ‘eta gero’ zentzuan: *dantzan aizan’ta* (A/LG).

5.3.1.2. PARTIZIPIO ZAHARRAK:

Eremu honetan ere *ebili* > *ibili* asimilazioa ez da egin, eta gure grabaketetan sistematikoki entzun dugu *eili* partizipio zaharra: *aat-unat eiltzen da* ‘harat-hunat

ibiltzen da' (U/EC), *ta elgarrekin eiltzen ginen* 'ta elgarrekin ibiltzen ginen' (U/MA), *eskolan eilia'gira* 'eskolan ibiliak gira' (A/PL)...

Horrez gain, *-ra-* artizkiarekin sortua den 'erabili' ere entzun dugu. Goi Nafarreraz bi adieren arteko nahasketa entzun du Ibarak (2000: 163), Lintzoainen 'erabili', 'ibili'-ren (*marcher*) zentzuarekin, eta Gerendiainen alderantziz. Hemen ere biak entzun ditugu:

- *eili*, 'erabili' zentzuarekin: *eili tut ba* 'erabili ditut bai' (U/EC), *etzen ordion lastoik eta eiltzen* 'ez zen ordion lastorik eta erabiltzen' (U/MTE), *eiltzen giniina* 'erabiltzen ginuena' (U/TU)
- *eraili*, 'ibili' zentzuarekin: *ni asteko auzoetako etxe guzietan erailia niz* 'ni hasteko auzoetako etxe guzietan ibilia niz' (U/JM), *zazpi neskato baginen erailtzen ginenak beti elgarrekin* 'zazpi neskato baginen ibiltzen ginenak beti elgarrekin' (U/LA), *eskolan'e ba oinez erailia'tira* 'eskolan ere bai oinez ibiliak dira', *baziren andriak erailtzen'tzirenak* 'baziren adreak ibiltzen zirenak' (U/TU)

Adieraren nahaste hau Urepelen bakarrik entzun dugula zehaztekoa da, nahiz eta 'eili' eta 'eraili' (guttiago bada ere) Alduden ere entzun ditugun, bakoitza bere zentzuarekin.

5.3.1.3. LAGUNTZAILERIK GABEKO ADITZOINAREN ERABILERA

Nafarroa Behere guzian eta Nafarroa Garaiko ekialdean aditzen den bezala (Camino 2004: 472), aginte edo ahalera ez diren aditzoinak laguntzailerik gabe aurki daitezke Aldudeko ibarrean. Guk hauek entzun ditugu grabaketetan: *soinia berak erakusten'tzin nola ar* 'soinuak berak erakusten zuen nola aritu' (A/LG), *batek atxik eta bertzeak ein* 'batek atxiki eta bertzeak egin' (U/AE), *etxeat jin bear eta ezin arriba* 'etxerat jin behar eta ezin arribatu (iritsi)' (U/MA), *tailuz pikatu, arresteluz bil* 'tailuz moztu, arresteiluz bildu' (U/TU)...

5.3.1.4. ADITZ IZENA

Nafarroa Beherea guziz baturik ageri zaigu aditz izeneko *-ite* morfemaren bidez. Guk ere bai, alde bat entzun dugu: *eremaiten* ‘eramaten’ (A/PS), *joitean* ‘jotzean’ (A/ALI), *eoitea* ‘egoitea’ (A/LG), *emaiteko* ‘emateko’ (U/EC), *izaiten* ‘izaten’ (U/JM), *joaiteko* ‘joateko’, *ukaiten* ‘ukaten’ (U/MA), *baiteko* ‘joateko’ (U/TU)...

5.3.1.5. UKAN / IZAN

UKAN eta IZAN-en artean Ipar Euskal Herrian bezala, Baigorriko ibarrean gehienik UKAN erabiltzen dela erraten du Zuazok (2021: 55-56). Guk aldiz, IZAN entzun dugu usuago, nahiz eta UKAN ere entzun dugun. Hemen adibide batzuk:

- IZAN: *eztut ideiaik izan’e otoaen erosteko* ‘ez dut ideiarik izan ere otoaren erosteko’ (A/GL), *nik eztut maite izan ura aurrendako* ‘nik ez dut maite izan hura aurrendako’ (A/MU), *katetxima izaiten giniin* ‘katexima izaten ginuen’ (U/MA), *kontent nintzan ba otoa izaitea* ‘kontent nintzen bai otoa izateaz’ (U/TU)...
- UKAN: *laguntzen ukaiteko neke izaen da* ‘laguntzen ukaiteko neke izanen da’ (A/PS), *komunioneik eztute ukan* ‘komunionerik ez dute ukan’ (U/MA)...

Esteribar-Erroibar ibarretan ez da UKAN atzematen, IZAN aldiz bai (Ibarra 2000: 200-201).

Bertako hiztunek ere, oraino ere gehienik IZAN erabiltzen dela segurtatu digute.

5.3.1.6. ADITZ ARAZLEAK

Aditz arazle franko entzun ditugu ibarreko hiztunenganik. Mugaz bestalde ere ugari direla konfirmatzen digu Ibarrak (2000: 201-202). Horra *-arazi* atzizkia entzun ditugun adibide batzuk: *hori ezti ori urtaazten giniin* ‘hori ezti hori urtarazten ginuen’ (U/AH), *irikinaazten giniin ura* ‘irakinarazten ginuen ura’ (U/AE), *eiaran einaazten’tzen* ‘eiheran eginarazten zen’ (U/MTE), *teoriak gauza anitz einaazten du* ‘teoriak gauza anitz eginarazten du’ (A/ALI)...

5.3.1.7. GEROALDIKO MORFEMA

Geroaldiko morfemen aldetik, *-en* eta *-ko* entzun ditugu. Zehazkiago, *l* eta *n* ondotik *-en* eta besteetan *-ko* entzun dugu: *arek einen'tziin minutian atorra josiko* 'harek eginen zuen minutuan atorra josiko' (U/JM)...

Izenaren morfologian erran bezala (2.4), *-anen* > *-aen* bilakaera da gehienik entzun duguna.

Aipagarria da, Baigorriko ibarrean bezala, *goo* entzun daitekeela aditz partizipioen ondotik, baina ez da geroaldiko atzizkia, 'gogo' izena baizik. Asmo batez hitz egiteko erabiltzen da, adibidez: *ein goo dut aitzina, ustez seurik* 'egin gogo dut aitzina, ustez behintzat' (A/ALI)

Goi Nafarreraren hegoaldeko hizkeretan, iparraldeko Ultzaman eta Baztanen bezala (Zelaieta 2008: 195), Erroibarren eta Esteribarren egiten den *-tuko* / *-tiko* txandaketa entzun dugu behin Alduden: *ta uai entseatiko niz kantatzera* 'ta orain entseatuko niz kantatzen' (A/PE).

Zuazok (2021: 22) dio, aldaketa hau Baigorri-Urepelen egin izan dela, eta Urepelen oraino bizirik dirauela. Egia da, aztertu ditugun grabaketetan hizlariak haien biziaz iraganean mintzo baitira, geroaldiko morfema gutti entzun ditugula, baina hala ere Alduden beste hiru pertsona eta Urepelen beste bi entzun ditugu *-tuko* egiten, aldaketa gabe: *kautxia arpatuko ziin* 'kautxua harrapatuko zuen' (U/MA), *ohituko nitzan* 'ohituko nintzen' (U/AE), *libratuko gitie* 'libratuko gaituzte' (A/XS), *ezkinin aise arrapatuko* 'ez ginuen aise harrapatuko' (A/GM), *aitak erten zatan: bazkak paatuko tiau!* 'aitak erraten zidan: bazkak pagatuko ditugu!' (A/ALI).

Bitxia da, lehenagokoak baitira gure hiztunak, eta beraz Zuazok dioenaren arabera *-tiko* egitea esperoko genuen. Hala ere, lana egin ondotik elekatu ditugun gaintiar guziek erran digute *-tiko* oraino egiten dela.

5.3.1.8. IBARREAN ERABILTZEN DIREN ADITZ LOKUZIOAK

- LIBRO IZAN: *eskuaraz ezkiniin libro* ‘eskuaraz ez ginuen libro’, *ez baiginiin libro dantzan ta artzea kanpoan* ‘ez baikinuen libro dantzan eta aritzea kanpoan’ (U/LA), *etzuten libro* ‘ez zuten libro’...
- EZAGUN IZAN: *ortaik zaun da tripa tripan diila* ‘hortarik ezagun da tripa tripan duela’ (U/AE)
- PRESO EGIN (jendarma ein, eder ein, ils m’ont fait): *preso ezpainintzan ein* ‘preso ez bainintzan egin’ (A/GM), *preso ein* ‘preso egin’ (A/GL)
- BAZKARI EGIN / BAZKALDU: ez dugu NOR erara jokaturik (bazkaldu gira) entzun. *alemanak bazkaiten ai ziela* ‘alemanak bazkari egiten ari zirela’ (A/GM) / *afaldu ta ofeat* ‘afaldu eta oferat’ (A/MU)
- EGARRIAK, GOSEAK, LOALEAK... EGON
Hiztunengandik halakorik entzun ez badugu ere, gaur egungo hiztun batek baino gehiagok Baxe Nafarroan entzuten ez duten *-ak egon* aditz lokuzioa erabiltzen dutela esplikatzen digute.

5.3.2. ADIZKI JOKATUAK

5.3.2.1. IZAN

NOR aditz sailean Nafarroa Behere guzian agertzen diren *niz, hiz, zira, gira...* *-i-* erroko adizkiak ditugu.

Iraganean, ‘nintzen’ > *nintzan* eta ‘hintzen’ > *hintzan* agertzen dira, nahiz eta guttiago bada ere *nintzen* ere entzun daitekeen.

NOR NORI sailean *-au-* erroa dugu Baxe Nafarroa osoan, salbu Aldude eta Donamartirin *zait* ere agertu baita Caminoren datuetan (2004: 474). Justuki, guk ere nagusiki *-au-* entzun badugu ere, *-ai-* ere aditu dugu Alduden eta Urepelen. Aldiz, ondotik beste hiztun batzuek baieztatu bezala, Orzaize aldean entzuten den *deta* ez da balean aditzen: *eni etzait gertatu* ‘eni ez zait gertatu’ (A/MU), *semiare lanian ai zait* ‘semea ere lanean ari zait’ (A/ANI), *etzait eldu burura* ‘ez zait heldu burura’ (U/AH), *ateako zitzaizkizun* ‘aterako zitzaizkizun’ (U/JM)...

5.3.2.2. *EDUN

AU > U diptongoaren aldaketa gertatzen da NOR NORK aditzetan, adibidez: “nau” > “nu”.

Aldude-Urepelen, NOR/NORK aditz menderatuetan *d* ahoskabetua da, eta adibidez ‘dudan’ > *dutan* (U/AE) bilakatzen da.

NOR/NORK aditz menderatuetan, NIK-HAIEK den kasuetan *-da-* ordez *-zta-* pluralgilea atzematen da Baxe Nafarroako toki anitzetan (ditudan > dituztan). Ibarrean ere *-zta-* aditu dugu: *usteut berriz burura bildu tutan* ‘uste dut berriz burura bildu ditudan’ (A/PE), *ostion erran dutan bezala* ‘lehenago erran dudan bezala’ (U/AE)...

5.3.2.3. *ERADUN

Caminok (2004: 460), Nor Nori Nork edo Nor Nori aditz sailetan *auzk / zkau* lehia ageri dela aipatzen du Baigorriko ezaugarrien artean. Baigorriko eskualdeko aditza ere xeheki landu zuen Pedro de Yrizarrek baieztatu zuenez, *dauzkigu / dazkau* ‘dizkigu’ adizkietan lehenak iparrekoak dira, Bidarra, Orzaize, Baigorri edo Bankakoak eta besteak hegoaldekoak: Aldude, Urepele eta Kintoakoak (1999: 160-182). Aztertu ditugun grabaketek adierazpen hauekin osoki bat egiten dute: *amak berak eiten’tzazkaun* ‘amak berak egiten zizkigun’, *jiten badira berriz horiik arrapatzen dazkaute* ‘jiten badira berriz horiek harrapatzen dizkigute’ (U/MA), *Baionaat’e igorrazten’tzazkauten* ‘Baionara ere

igorrarazten zizkiguten' (U/AH), *han arek aipatzen zazkaun* 'han harek aipatzen zizkigun' (A/ME), *prestatzen'tzazkaun etxeko andereak lanak* 'prestatzen zizkigun etxeko andereak lanak' (A/LG), *aire gaxtoak karri baitzazkaun ardi alde'at* 'aire gaiztoak ekarri baitzizkigun ardi alde bat' (A/ANI)

5.3.2.4. -KO DATIBO MARKA

Hirugarren pertsonako datiboko morfema *-ko* da Nafarroa Behere guzian (Camino 2004: 474). Aldude-Urepelen, *zako-z gain zaiko* ere usu entzun dugu: *ta gero puskaka ur beroa emaiten'tzitzaikon* 'ta gero puskaka ur beroa ematen zitzaion' (A/LG), *oitzen niz zarzen zizaikola* 'oroitzen niz ezartzen zitzaiola' (U/AH), *bearriak arrunt otz-otza jartzen zaizko* 'belarriak arrunt hotz-hotzak jartzen zaizkio' (U/AE)...

5.3.2.5. DATIBOAREKIKO HAUTAZKO KOMUNZTADURA

"Behauzeko berriemaile batek Koldo Artolari ziotsozez, aldaera tripertsonalak, eguneroko mintzoan baino gehiago, elizáko libúrian ageri dira (Irizar 2002: 97)" idazten du Caminok bere lanean (2004: 472) Baxe Nafarroan datiboarekiko komunztadura ez egiteko joera badela adieraziz. Ibarak (2000: 153-154) baztaneraz eta aezkeraz bezala, Esteribar-Erroibarreko euskaran ere joera bera atzeman daitekeela erakusten du.

Beraz, pentsa daitekeen bezala guk ere entzun ditugu datiboarekin komunztadura egiten ez diren esaldiak: *horri naasten ginitiin* 'horri nahasten genizkion' (U/AH), *nere buruari galdetua dut galde ori miletan edo geiagoetan* 'nere buruari galdetua dut galde ori miletan edo geiagoetan' (A/FRB), *komunioneai edo urbiltzen asten bazen, azen ardurao* 'komunioneari edo hurbiltzen hasten bazen, bazen ardurago' (U/MA)...

5.3.2.6. *EDUN IZAN-en ORDEZ

NOR aditza galdegiten duten esaldi batzuetan NOR/NORK entzun dugu. Hain zuzen ere, aldaera horrek balio inplikatioa du esaldiaren objektu zuzen bilakatzen den pertsonarekiko. Hona grabaketetako adibide batzuk: *liotenanta Olorondarra giniin* ‘lieutenant-a (kargudun militarra) Olorondarra (Olorue-koa) ginuen’ (A/GM), *semiare lanian ai zait* ‘semea ere lanean ari zait’ (A/ANI), *baño ila’ut me bertzea bizi’ut* ‘baño hila dut mais bertzea bizi dut’ (U/MA), *ama zortzi urtetako ila niin* ‘ama zortzi urtetako hila nuen’ (U/TU)...

5.3.2.7. NOR NORI NORK, NOR NORKen ordez

Bonaparten garaian bezala Caminok (2004: 460) dio Baigorri herrian Nor Nork sailaren ordain, Nor Nori Nork adizkiak erabiltzen dira batzuetan. Ezezaguna eta ezohikoa da joera hau Ipar Euskal Herriko euskaran, baina ohikoa da Baztanen, Erroibarren eta Esteribarren.

Guk Aldudeko hiztun baten ahoan entzun dugu: *harek kontsideratzen zaukula* ‘harek kontsideratzen gintuela’, *ezkinin menturatu* ‘ez ginen menturatu’ (A/GM) Bertako hiztun batek, hori oraino ere entzun daitekeela segurtatu digu, baina “ibar muturrean bizi diren jendeenganik bakarrik”, nolabait pixka bat isolatuagoak diren etxeetan bizi direnengandik.

5.3.2.8. ADLATIBOKO ATZIZKIAK ADITZ OSAGARRIETAN

Osagarria adlatiboan atzeman diegu aditz batzuei: “UTZI” *ezkinuzten uzten joaitera* ‘ez gintuzten uzten joatera’ (A/LG), “EMAN” *zomaitzuk emaiten dute erakustera* ‘zenbaitzuk ematen dute erakustera’ (A/PS), “ARRAÑATU” *gauza gutiikin arrañatzen ginen zerbaiten itera* ‘gauza gutirekin arrañatzen (moldatzen) ginen zerbaiten egitera’ (A/MH), “ABIATU” *abiatu ginen zubia paastera ta untsa arriatu* ‘abiatu ginen zubia pasatzera ta untsa arribatu’ (A/XS)...

5.3.2.9. ALOKUTIBOA

Azpimarratzekoa da Zuazok (2021: 54-55) Baigorriko euskara aztertzean antzeman bezala, guk ere ez dugula balean xukaren arrastorik sumatu. Hala ere, ezin da erran gabe utzi 1952an Lacombes-ek xukako forma batzuk antzeman izana.

Aldiz, nahiz eta aztertu ditugun grabaketek forma alokutiboak entzuteko bide gutti eman duten, gaiari buruz zer errana badugu. Izan ere, mintzatu giren ibarrekoek argi dute HIKA bizi izan dela, eta guttiago bada ere oraino bizi dela Aldude-Urepelen. Hori bai, bereziki gizonen artean TOKA erabiltzen da, nahiz eta adin bateko emazteek beren artean NOKA egiten duten, eta lehenago gehiago egiten zela suposa dezakegun. Emazteek gizoner TOKA bai, bakan batzuek baina adinekoen artean, arrebek anaier adibidez. Aldiz gizonek NOKA arras gutti erabiltzen dute.

Grabaketetan gizonak entzun ditugu TOKA egiten beren elkarrizketa bat errepikatzean: *Beala itzuli beauck giiliat* 'berekala itzuli behar duk gibelera' (A/XS), *ta erten nakon: "guk bearko diau sinetsi"* 'ta erraten nakon: "guk beharko diagu sinetsi" (U/TU), *hik eztuk arrainik atxemain* 'hik ez duk arrainik atxemanen', *bainan mutikoa etzakala olako gogoan pasare, eztik balio ta eiz kapablere* 'baina mutikoa ez ezak holako gogoan pasa ere, ez dik balio eta ez haiz kapable (gai) ere' (A/PE)

Eta behin, Mari Antxaño Urepeldarrak bere semearen eta beste mutiko baten arteko elkarrizketa bat errepikatzean TOKA erabili du.

5.3.2.10. ADITZ TRINKOAK

Aditz trinkoei dagokienez, lehenik Lapurdin eta Baxe Nafarroan gertatzen den bezala (Camino 2004: 474) iraganean *a* bokala hartzen dute Aldudeko ibarrean ere.

Dena dela, ondoko aditzetan entzun ditugu trinkoak ibarreko hiztunenganik:

EGON: *ni emen beti gizon azkarra nau* 'ni hemen beti gizon azkarra nago' (A/ANI), *amazazpi urteko naskato'at beti ura borxatzen zuten beldurrez tzaon*

'hamazazpi urteko neskato bat beti hura bortxatzen zuten beldurrez zegoen' (A/GM), *trankil zaude!* 'trankil zaude! (agintera)' (A/MU)

JOAN: *nindoalaik* 'nindoalarik' (U/MA), *bazoan artoa beiti* 'bazihoan artoa beiti' (U/EA), *badaza eskolat* 'badoaz eskolara' (U/JM), *ohitzen niz mezaat ginazan* 'oroitzen naiz mezara gindoazen' (U/TU)

Bertakoek 'zaza' (zoaz) formako aditz trinkoak alde bat entzuten direla erran digute, guk elkarrizketen formatuarengatik arras gutti entzun baditugu ere.

JAKIN: *aizanaen bortxaz bazakin* 'ari izanaren bortxaz bazekien' (A/MH)

IBILI: *zailtzan* 'zebiltzan' (A/XS)

5.3.2.11. ALEGIAZKO BALDINTZAK

Zuazok dioenez (2021: 58), Baigorriko ibarrean EDIN* eta EZAN* aditz laguntzaileekin osatutako alegiazko baldintzak erabiltzen dira, aditzoinak aitzinean dituztela. Guk, joera hau pertsona baten ahoan soilik entzun dugu: *urik gabe erail balai, fite destrenpa laike* 'urik gabe erabil baledi (erabiliko balitz), fite destrenpa liteke', *beste adinetako ofiziale batzui ai balezate pentsatzen dut gauza bera erran lezaketela* 'beste adin bateko ofiziale batzuk ari balira pentsatzen dut gauza bera erranen luketeela' (A/MH).

Pentsa dezakegu galtzen ari den joera bat dela beraz, Erroibar inguruan desagertzen ari den bezala (Ibarra 2000: 199).

5.3.3. ADBERBIOAK

5.3.3.1. HANPATURIKO ADBERBIOAK

Hanpaturik doazelarik, adberbioak eta aditz sintagmako adjektiboak errepikatzen entzuten ahal dira Nafarroa Beherean eta Lapurdin (Camino 2004: 469). Baigorriko ibarrean absolutiboko artikulua singularra darama azken hitzak

joera hori egitean. Grabaketean hala-hala entzun dugu: *eta harek lope-lopea likido'at* 'eta harek lope-lopea likido bat' (U/AH), *ori arrunt xuku-xukia* 'hori arrunt xuku-xukua' (U/AE), *frontera urbil-urbila da* 'frontera (muga) hurbil-hurbila da' (U/MA)

5.4. JOSKERA

5.4.1. OSAGARRI ZUZENA GENITIBOAN

Ekialdeko hizkeretan egin ohi den bezala osagarri zuzena genitiboan joaten da gehienetan Aldude-Urepelen: *kutxaen helaaztiaz'e familiara* 'kutxa helarazteaz ere familiara' (A/MH), *dieus etzen horren eitia* 'deus ez zen hori egitea' (A/GM)...

5.4.2. JUNTAGAILUAK ETA LOKAILUAK

Baxe Nafarroa gehienez bezala *ala* eta *edo* erabiltzen dira Aldude-Urepelen. Caminok (2004: 478) aipatzen duen *ala / edo* bereizketari eusten dio Baigorriko ibarrak, eta aditu dugunez gaintiarrek ere: *ordion denak "à pied" eltzen'tzien, uda'ala neu* 'orduan dena à pied heltzen ziren, uda ala negu' (A/GL), *naiau ginuke jakin zubi ori zaindia den bai al'ez* 'nahiago ginueke jakin zubi hori zaindua den bai ala ez' (A/GM) / *izan dain gasnatzea edo berze produkzione'atzu* 'izan dadin gasnatzea edo bertze ekoizpen batzuk' (A/PS)...

Seurik entzun dugu, Erroibarren eta Esteribarren Ibarak (2000: 212) entzun zuen bezala, erran nahi baitu 'bederen' erran nahiarekin: *oren bat seurik eon ginen alemanen artean* 'oren bat bederen egon ginen alemanen artean' (A/GM), *ein goo dut aitzina, ustez seurik* 'egin gogo dut aitzina, ustez bederen' (A/ALI), *"bon" sukarra seurik apaldu eiten zitzakon* 'bon sukarra bederen apaldu egiten zitzakon' (U/AE)...

Bakarrik hitzaren erabilera berezi bat entzun dugu. Perpaus hastapenetan erabiltzen da batzuetan lokailu gisa, kontrakotasuna adierazteko, 'bainan' edo

‘aldiz, bizkitartean’ erabil daitekeen bezala: *gaua paste’gintiin jendeekin ta, bakarrik ez ofetan ez, ezkinien libro ez ofetan etzatea* ‘gauak pasatzen genituen jendeekin eta, bainan ez ofetan ez, ez genuen libro ofetan etzatea’ (A/GM), *bakarrik eniz beti beti an eona baina kasik ene demora guzia* ‘aldiz ez naiz beti beti han egona baina kasik ene denbora guzia’ (A/PL)...

Honek nolabaiteko itea dio frantsesezko *seulement* lokailuari, batzuetan esaldi hasieran atzeman daitekeena.

Berriz erabiltzen da: *uai berriz bi oontan asten dira ta gau guzia* ‘orain berriz bi orenetan hasten dira eta gau guzia’ (A/MU), *alde batetik... bestetik berriz...* (A/MH)...

Ba... ta ba... ere entzun dugu: *ba beia ta ba beorra’re* ‘bai behia eta bai behorra ere’ (U/AE)

5.4.3. DENBORAZKO PERPAUSAK

Denborazko perpausetan *-la(r)ik / -la(r)ikan* entzun dugu nagusiki Aldude-Urepelen, nahiz eta *-nean* ere entzun dugun: *gero koxepa hil’tzelaikan* ‘gero Joxepa hil zelarik’ (A/LG), *ta frantzia pasatu ginuelaikan* ‘ta frantzia pasatu ginuelarik’ (A/ANI), *pikatzeat jiten ginelaikan* ‘pikatzero (moztera) jiten ginelarik’ (U/MTE), *artoa biltzen’tzelaik* ‘artoa biltzen zelarik’ (U/EC), *ikusten gintinean run run run ta kurri* ‘ikusten gintuenean “run run run” eta kurri’ (A/GM). Baxe Nafarroa guzian bezala (Camino 2004: 470), Zuazok (2021: 105-106) Baigorriko ibarrean hiztun batzuek *-la(r)ikan* ere erabiltzen dutela erraten du. Hala ere, sumatzen dugu desagertzen ari den atzizki hori orainokoan gaintiarrek Baigorriarrek baino gehiago erabiltzen dutela. Azken finean, grabaketetan oraino hiztun gehienek egiten dute, mendian emekiago galtzen ari den seinale. Gisa berean, Esteribar-Erroibarren ere *-larik* nagusitzen da, eta “Larrasoañako testuan” *-larikan* ere agertzen dela espliketzen du Orreaga Ibarrak (2000: 205-206).

Aditu ditugun denborazko beste erramolde hauek ere azpimarratzekoak dira:

Lehenik izenaren gaineko morfemak:

-(ra)ko : *ene denborako jaanik baziren maxina'atzu* 'ene denborarako jadanik baziren maxina batzuk' (A/LG), *gauazko etxeat jiten ginen* 'gauerako etxera jiten ginen' (U/JM)

-tik landa : *mezatik landa* 'meza eta gero' (U/JT), *hantik landa seroretan "ouvroir"-ean erailtzen ginen* 'han ibili ondotik seroretan *ouvroir*-ean sartu ginen' (U/MTE)

-ren buruan : *esposatu ta zorzi urteen burian* 'esposatu ta zortzi urteren buruan'

-etan : *haurra eunean hiruetan beti* 'haurra egunean hiru aldiz beti (jantziz aldatzen)' (A/MU)

... *ondoan* : *pilota partida ondoan dantzan aizan'ta* 'pilota partida ondotik dantzan aritu eta gero' (A/LG), *gerr'ondoan* 'gerra bukatu eta' (U/JT), *bero ondoan* 'beroaren ondotik' (U/AH)

... *artio* : *eskolan eili niz amalau urteak artio* 'eskolan ibili naiz hamalau urteak arte' (U/LA)

Eta adizkietakoak:

-no atzizkia : *egin goo dudano, segitu, aal dudano* 'egin gogo dudano (egiteko gogoa dudan artean), segitu, ahal dudano' (A/ANI)...

... *eta* : *pilota partida ondoan dantzan aizan'ta* 'pilota partida ondotik dantzan aritu eta gero' (A/LG)

-z'keoz : *aurrak mundura jinez'keoz amaen obliazionea da hurrez okupatzea* 'haurrak mundura jin ondotik amaren obligazioa da hurrez okupatzea' (A/MU),

berzenaz batetikan karriko duu, aski goiz atxemanez'keoz asteko 'bertzenaz batetikan ekarriko dugu, aski goiz atzeman ondotik hasteko' (U/AE)...

5.4.4. PERPAUS OSAGARRIAK

Baxe Nafarroan, Lapurdin, Aezkoan, Baztanen, Ultzaman eta Esteribar-Erroibarren *uste* aditzarekin osaturiko perpaus gehienek *-la-*ren ordeztasun morfema hartu ohi dute. Ibarreko hiztunak ere *-(e)n* egiten entzun ditugu gehienik: *usteuzu oitzen nizan?* 'uste duzu oroitzen naizela?' (U/JM), *otita usteut jin zitzaikon* 'otita uste dut jin zitzaiola' (U/MTE), *eztut uste aberats haundiik baden eta gure eskualde hortan* 'ez dut uste aberats handirik badela eta gure eskualde hortan' (A/PS), *nik uste amar baino geiau ez'tazkiten izenak* 'nik uste hamar baino gehiago ez dakizkitela izenak' (A/ME)...

Gisa berean, ez dugu *-nik* entzun perpaus nagusia ezezkoa delarik.

Beharrik 'eskerrak' hitza ondotik *-en* eta *bait-* entzun ditugu: *bearrik aspaldi kendia'tien ardiak* 'bearrik aspaldi kenduak direla ardiak' (A/GM), *bearrik odolgien ta eiteko sua iten baitzen* 'bearrik odolkiak egiteko sua egiten zela' (A/LG)

Perpaus osagarrietan entzun ditugun beste atzizki batzuk:

Zehargaldera ugari entzun ez badugu ere, ez dugu behin ere *-netz / -nez* aditu, guk *-(e)n* entzun dugu: *arek niarrez ea preso einak'inen* 'hark nigarrez ea preso eginak ginen' (A/GM), *ez dakit biziki garbi dien progreak* 'ez dakit ea biziki garbiak diren hobekuntzak' (A/ALI). Honi buruz, Caminok (2004: 476-477) Baigorrialdean *-netz* eta *-nez* aditu dituela badio ere, gehienik *-(e)n* entzun duela aitortzen du.

5.4.5. PERPAUS ERLATIBOAK

Bait- + *aditz laguntzailea* aditu dugu: *eraman'tzuten baita kaserna hor* 'eraman zuten hor dagoen kasernara' (U/MA), *ta oai badu bortz urte zerratu bitau* 'ta orain badu bortz urte hetsia dela' (U/JT), "*la morale*" *goiz guziz egiten baitzauuten* '*la morale*' goiz guziz egiten zaukutena' (A/LG), *gure aurra'dena'sortia'ziren ba, nik bokata iten bainiin ur aundian* 'gure haurrak denak sortuak ziren bai, nik bokata egiten bainuen ur handian (bokata egiten nuelarik)' (A/LG), *nik zautu tut hamabi laun, ta oai badu bortz urte zerratu bitau* 'nik ezagutu ditut hamabi lagun, ta orain badu bortz urte zerratu(rik?) baitago' (U/JT)...

Nun (eta) izenordain erlatiboa: *edozointan, nunta lana bazen ura joaiten'tzen gaixua* 'edozoinetan, lana zegoen tokira joaten zen gaixoa / lana non baitzen, hara joaten zen' (A/LG)

5.4.6. XEDEZKO PERPAUSAK

-t(z)ekotan entzun dugu behin *-t(z)eko* gisara erabilia: *gero sumilaikin oitan denetan bear du zera pastu lurra xeatzekotan* 'gero sumilarekin horietan denetan behar du zera pasatu lurra xehatzeko' (A/PL)

5.4.7. KAUSAZKO PERPAUSAK

-kotz entzun dugu: *sosa nai niilakotz* 'sosa nahi nuelako' (A/GL), *eiten nitiin baina ez maite niilakotz'e* 'egiten nituen baina ez maite nuelako e' (A/LG),

Adiera kausala duen *bait-* ere bai: *lanak'e bear baitziren etxean ein* 'lanak ere behar baitziren etxean egin' (U/JT), *bear giniin joan tenoreko bertzenaz puni bainginen* 'behar genuen joan tenoreko bertzenaz zigortuak bainginen' (U/MA), *gero obeki komprentzen baita ordion beino* 'gero hobeki konprenitzen baita orduan baino' (U/MTE)...

-z'keoz : *gu etxeko haurrak izaitez'keoz* 'gu etxeko haurrak ginenez' (A/MH)

-(r)en medioz entzu dugu behin: *ba, aizanaen medioz beti, eztuu eskolan kasi* 'bai aritzeagatik, ez dugu eskolan ikasi' (U/AE)

Ezen behin aditu dugu: *aterabide bat bear da, ezen aferak aski makur dira jaanik ta gaizkituz joan dira* 'aterabide bat behar da, aferak aski makur baitira jadanik eta gaizkituz joanen dira' (A/PS)

5.4.8. BALDINTZA PERPAUSAK

-t(z)ekotz erabiltzen da baldintza adierarekin ere: *puxka'at ikastekotz zeeit* 'puska bat izatekotan zebait' (U/JM), *sekula izaitekotz libro, ordion zitaikela'azkaiten ai ziela* 'sekula libro izatekotan, orduan zatekeela bazkari egiten ari zirela' (A/GM)

nun eta aditu dugu baldintza adierarekin: *nun ezten arrunt artia ba* 'ez baldin bada hartua bai' (U/AE), *maiteut denbora den bezala artzea, nun ta makurrik ez tin eiten* 'maite dut denbora den bezala hartzea, makurrik egiten ez baldin badu' (A/ME)

5.4.9. PERPAUS KONTZESIBOAK

-(r)ik ere aditu dugu: *lurra untsa xeatuik'e* 'lurra untsa xeaturik ere' (A/PL),

-gatik(an) : *izanaatikan beti ferratzen denai jiten aal'tzaiko're* 'izanagatikan beti ferratzen denari jiten ahal zaio ere' (U/AE), *alamanek xarmanki « sendiatu » izanaatik gure etsaiak* 'alemanek xarmanki sendatu izanagatik gure etsaiak' (A/ANI)

na(h)iz + adizkia entzun dugu behin hiztun Urepeldar baten ahotik, *-en* gabe adizkiaren ondotik: *naiz oono're badira bixkotxak paperetan erretzen direnak* 'nahiz oraino ere badira (ez badiren) bixkotxak paperetan erretzen ez direnak' (U/AH)

5.4.10. KONPARAZIO PERPAUSAK

Beti eta ...-ago: gauzak beti ta nekeao baitira 'gauzak beti eta nekeago baitira' (A/PS)

-ago ... ezinez eta ... : naiao niin lanean aizan ezin ez ta josten 'nahiago nuen lanean ari izan josten baino' (A/LG)

... -ago ... -ago : tailia xorrotxao eta pailea ai/3/eao ari zela 'tailua zorrotzago eta epailea aiseago ari zela' (A/MH)

5.4.11. -A MORFEMA GALDERETAN

Bai / ez galderetan *-a* morfema erabili ohi da Nafarroa behere guzian (Camino 2004: 476). Ibarrean ere ezaugarri hau entzun dugu: *etzuzia nitan konfiantzaik* ? 'ez duzia nigan konfiantzarik ?' (A/GM), *nik dakita* (U/ AH eta MA)... Azken adibide hau 'ez dakit' errateko galdera erretoriko gisa erabilia da.

5.4.12. HANPATURIKO ERE

Hanpaturiko *ere*-ren erabilera ere azpimarratzekoa da. Nafarroa Garaiko eta Baxe Nafarroako eremu frankotan aditu daitekeen ezaugarria entzun dugu ibarrean ere: *eta gero zemait aldiz zartzen'e gintiin fruitiak* 'eta gero zenbait aldi ezartzen ere genituen fruituak' (U/AH), "*bueno*" *pixkat irri eiteko're zen* 'bueno pixka bat irri egiteko ere zen' (U/LA)...

6. ONDORIOAK

6.1. EZAUGARRIEN KOKAPENA

Azken atal honetan, lanean zehar agertu zizkigun ezaugarriak, eta haien hedadura laburki biltzen ahaleginduko gara. Eskualde honetan ikusi ditugun ezaugarriak hizkera hauekin partekatzen ditu Aldude-Urepeleko mintzoak:

→ BAXE NAFARROA GUZIAN

- Afrikaturik ez hitz hastapenetan
- Hasperena desagertzen ari
- RR hobikaria desagertzen ari
- Datibo plurala: *-er* (lapurdin ere)
- Soziatiboa: *-kila*n
- Izenordain hanpatua "nihaur" (lapurdin ere)
- Aditz izeneko *-ite* morfema
- *-a* morfema galderetan
- Iraganean trinkoek *-a-* hartzen dute
- Hanpaturiko adberbioak
- Hanpaturiko ere

→ BAIGORRIKO IBARREAN

- *rz lz nz* kontsonante taldeak
- *-xe* eta *-keta* atzizkiak

→ BAXE NAFARROAN + NAFARROA

GARAIAN

- Aferesia
- Sinkopa
- Laguntzailerik gabeko aditzoina, baina Nafarroa ekialdean soilik atzematen

- *EDIN eta *EZAN adizkiekin osturiko alegiazko baldintza desagertze bidean

→ BAIGORRI + NAFARROA GARAIAN

- “rtz” kontsonante taldea, “st” ordez
- *l* edo *n* ondotik heldu direlarik, herskariak ahostun gisa ahoskatzeko joera sumatu dugu. Joera hau lapurdin ere ezagun da.
- *-tikan* / *-rikan* / *-larikan* = *-kan* morfema, ibarrean gero eta guttiago entzuten bada ere
- *xuka-rik* ez agertzea
- Nor Nori Nork, Nor Nork aditzen ordez

→ NAFARRERAN

- *Ebili* partizipio zaharra
- *-tuko* > *-tiko* geroaldiko morfema

→ EKIALDEKO HIZKERETAN

- Osagarri zuzena genitiboan

Azkenik, landu dugun eskualdean ingurukoetan agertu gabe gelditu diren ezaugarriak aurkeztuko ditugu:

→ ALDUDE-UREPELEN

- EA > IA bilakatzea gehienetan ez gertatzea
- I + A elkarketan azentua *i* an agertzea
- UA > UIA silaba bat baino gehiagoko hitzetan egitea
- BAN
- AREN > AIN egiteaz gain, AEN egiten
- RIK > IK ablatibo zaharraren bi agerpen entzun ditugu
- Nor Nori Nork eta Nor Nori sailletako “zkau” erroa

- “iko” datiboko marka (“zaiko”)
- Joan aditzaren trinkoen “za” erroa

Horrez gain, aipatzekoa da aztertu ditugun bi herrien artean ez dugula desberdintasun nabarmenik entzun.

Urepeldar batek erranik, eta aditu dugunez Aldudarrek “plazan” (ordez) eta “à pied” (oinez) (hau guk Urepeldar batengandik ere entzuna) erraten dute, frantses hitzak euskarazko esaldietan erabiliz. Hala ere, tendentzia orokor bat da frantsesezko hitzak euskarara ekartzea, Alduden nahiz Ipar Euskal Herri osoan, bai zaharren bai gazteengandik ere.

Bestalde, nabarmentzekoa da justuki Urepelen lexikoa lantzeko denborarik gabe gelditu garenez aipatzeko tarterik hartu ez dugun gaztelaniazko hitz anitz entzun ditugula euskarara ekarririk: *“bueno” pixkat irri eiteko’re zen ‘bueno pixka bat irri egiteko ere zen’ (U/LA), edo guk ez’kiniin sukar artzekoik usatzen ‘guk ez genuen sukar hartzekorik usatzen’ (U/AE) besteak beste.*

Lexikoan aipatzekoa litzateke ibarrean entzun dugun beste berezitasun fonetiko bat: “joan” ordez “ban” erratea. Alduden: XS, PL, MU, LG, FRB, ANI eta Urepelen: AH, JM, MTE, TU entzun ditugu aldaera hau egiten.

6.2. KONKLUSIOAK

Aldude-Urepeleko hizkeraren sailkapenaz ari zen atalean aipatzen genuen bezala, lan honek islatzen duen errealitate nagusia, ibar bazterreko euskarak Baigorriko euskararekin ezaugarri ugari partekatzen baditu ere, hegoaldean dituen ibarretako euskarak dituen ezaugarri anitz ere dituela da.

Honekin deus berri ez erranik, Caminoren laneko sartzean (2004: 446) hizkuntzalariak egiten duen gogoeta bat ekartzea pertinentea iruditzen zaigu:

“Baigorriko hizkuntza-ezaugarri batzuek Ipar Euskal Herriko mendebalderagoko euskararen oihartzuna dakarte eta Nafarroa Behere gehienez ageri diren zenbait ezaugarritarik zertxobait urruntzen dira. Besterik da frogatu ahal izatea, Nafarroa Behereko berrikuntzetarik

desberdinak diren Baigorriko bereizgarri gordetzaile batzuk, Baigorriren izaera menditsuaren eta bakartze orografikoaren ondorio diren, ala ondoko Baztan, Esteribar eta Erroibarrekiko hartu-emanari ote dagozkion, ala bi arrazoiak batera biltzen ote diren.”

Izan ere, kokapen historiko-geografikoarekin ulertu dugunez, Aldudeko parrokia sortu aitzin eremu horretako soroak bi aldeetako laborariek erabiltzen zituzten. Gainera, Aldude eta Urepeleko herrien sortze prozesuarekin bi aldeetako biztanleak joan ziren ibarrera bizitzera, eta horrek iparraldeko eta hegoaldekoen harremanak ugaritu zituen, soroekiko norgehiagokak gaur egun arte iraun duelarik.

Zentzu horretan, egia da lan honetan ez dugula ezaugarrien bilakaera landu, garai ezberdinetako datuak konparatuz. Gisa berean, eremu honetako euskarari buruz gehiago jakiteko, Garaziko eta Lapurdiko hizkerekin gehiago parekatzea komenigarria litzateke.

Beraz, aipaturiko guziak argibide batzuk ematen badizkigu ere, denbora kontuan hartuko duen lanketa egitea ezinbestekoa izanen da ibarreko hizkeraren ezagutzan sakontzeko eta Caminok mahaigaineratzen duen problematikari erantzuteko.

7. BIBLIOGRAFIA

ARVIZU F.

- 1992. "El conflicto de los Alduides (Pirineo Navarro)". Gobierno de Navarra. -427.

BONAPARTE L.L.

- 1863. "Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara et sa division dialectes, sous-dialectes et variétés". Londres.
- 1881. "Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos". *Revista Euskara*. 161-166. Iruñea.

CAMINO I.

- 2004. "Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian". UPV/EHU. 68-102. Gasteiz.
- 2004. "Nafarroa Behereko euskara". *Fontes Linguae Vasconum*. 445-486.
- 2009. "Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi". *Elkar argitaletxea*. 1-630.

EUSKALTZAINDIAREN DIALEKTOLOGIA BATZORDEA

- 2005-2008. "Euskararen Herri Hizkeren Atlas" [EHHA] .

"MEHAKA" Baigorriko interpretazio zentroa (2022)

IBARRA O.

- 2000. "Erroibarko eta Esteribarko hizkera". NUP. -273. Iruñea

YRIZAR P.

- 1999. "morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental". Euskaltzaindia. Bilbo

ZELAIETA E.

- 2008. "Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa". Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernua. Bilbo eta Iruñea.

ZUAZO K.

- 1999. "Baigorriko euskara kokatzeari buruz" *Nº4 Lapurdum: euskal ikerketen aldizkaria*. 247-277
- 2021. "Baigorri eta Ortzaize ibarretako euskara". UPV/EHU. -438. Bilbo.

8. ERANSKINAK

8.1. TRANSKRIBAPENAK

Hiztun baten mintzatzeko manera aztertzeko manierarik zehatzena transkribapena da. Transkribapenaren helburua hiztunak erraten duen guzia idaztea da, ondotik manera errexago batean aztertu ahal izateko. Guk, hautatu genituen hiztunen artean lau Aldudar eta hiru Urepeldarren elkarrizketak transkribatu ditugu, manera hoberena bada ere, denbora anitz hartzen baitu pertsona batek dioena ahal bezain zehazki paperean agertarazteak.

Trankribatzeko erabili ditugun bitartekoak aipatzea dagokigu lehenik, dena ongi ulertu ahal izateko gisan:

- Elgarrizketatuen izenetan, “makoen artean dena” hiztunen sortetxearen izena da.
- Elgarrizketatuak erraten duena soilik idatzi dugu. Artean elkarrizketatzaileak zerbait erraten badu, lerrora joan gara.
- “*ze laborantxa klase zinuten?*” > Letra etzanean doaz elkarrizketalariak erraten dituen gauzak, elkarrizketatuak erran duenean eragina izan dutelarik, edo ulertzen ez delarik.
- “*élevage-a*” > Letra etzanean doaz ere erderazko hitzak, erdaraz bezala ahozkatuak direnak.
- “aal’tzen” > Hitzen elkartzean, hitz baten hastapen edo bukaerak bestean eragin nabarmena baldin badu, ‘batez lotu ditugu.
- “andiagwak” > *w* letra ezarri dugu *o + a = wa* bilakatu delarik. Diptongo gisara ahoskatzen da.
- “demobili/z/atu” > Frantsesetik heldu zaigun /z/ fonema “plaisir” hitzean aurkitzen den bera da.
- “Bel/3/ikan” > Frantsesetik heldu den /3/ fonema “jeu” hitzean aurkitzen den bera da.
- ??usea zenaina zen ori?? > Entzun baina ulertzen ez ditugun gauzak galderazko ikurrez mugatu ditugu.

ALDUDE

Gerlari buruzko “Gure arbasoak” emankizun batean hiru aldudar elgarrizketatu zituen Argitxu Canterok. Hiruen elgarrizketak transkribatu ditugu:

Poxoziako Antton INDA: 00:00 - 17:00

Nik kampaña einaut Poxozian hoitamar urte in tut nausiaen beldur, beti beldur, sos guti iraaiz.

Alduden pastuut demora haundia eta soldado berze bultaat eerra alamanekine borroka ari niz heeke izitutut ta heeke izitu balinbanutere ni ez bate nehorendako beldur gelditu ni hemen beti gizon azkarra nau.

Alors, gerlako ukaldia sendatu zitzaan baina sendatzetik eta sendatzera bada gauza aunitz bakarrik sosa jiten zaut goernamendutik eta sos harek balioa baitu biziik gelditu bainiz, berze batzu gelditu dira hilak bainan ni bizi beti entseatzia balio du gerlane.

Hoitalau urte, hoitalau urte memento hoeen hoeenean, andreta baiteko're iziarria kapablia, hua karriik andriare beantao artu niin eta goiz aski bainan alare kampaña eerra eraman dut, etxea eosia niin, ta etxiake eztu bate arranguraik, maaztiare zenauzu maluroski garbitiaut, banaut Bainan etxia berdin untsa daukat, ta semiare lanian ai zait, Anemari gaizoa urare apier lafitte bere senarraekilan eta anton zaharra ementxe bakar bakarra, xarmateko maztea jin zat oño oñora aian luzaz iraunen diila.

Oitalau urtetan erreximendia ein'iin hoitabat urtetan ban nintzen erreximendurat. Erreximendia finitia nin bi urte'ei bainitiin. Ta bi urtein burian gerla deklaatu zen, ta gerla as zain nitzan gerlat ban aitzinean ta jakin'zazu niarr'ei'niila handik partitzean berriz gerla eo bainakin eta gerlaa nindoala. Bakarrik ezta

bear pentsatu gerla gerla da mainan ezta bear pentsatu hiltzen ahal girela hane ni eninza hil baina ??eier ba??.

A Epinal nintzan, La Moselle, ta han bear zen eta alamanen kontra erresistatu anitz baakizu zer den erresistatze ori ? Erraitia erres'ta : amen'umiak ilez. Nire gaizua han'nintzan mainan zenauzu gure'yinkoak e'tziin nai ni han il'nindain, uai beldurtiak omen dira enizala hilene.

Ba gero handikan alamanek eraman ninduten ospitaleat, ta alamanek xarmanki sendiatu izanaatik gure etsaiak.

Zenauzu, gerla gerla baita, baziren hane, alamaniane iende unak ezta kit nik zendako eta ein duun gerla alamanen kontra, ni alamanekilan geoztikane mintzatia niz Alduden, Alduden batek erran daut aatik politika dela gerla.

Urtean eon'nintzan preso.

Nun hori ?

A Fribourg (Indaren erantzuna)

Bea noiz jinen nintzan eta Frantziat, ta Frantziat jin nitzan ta hek eta ekarri ninduzuten à *Chalons-sur-sône*. Treina à *huit heures* han'tzen arduratia eta handikan bear ginin *la ligne débarcation* pasatu ta biziki kontent frantziaat pasatziaz. Ta frantzia pasatu ginuelaikan andre guziak eta gizonak heldu zien gara guzietaik kafia ta zigarreta ta den guziekilan ta guk estimatzen baigintiin hoinak.

Gero jin ginen Briveat, ta Briven, han, bear giniin demobili/z/atu gu eta *zone* eta zerakoak baiginen. Hunat jiten gira, hemengo andriak gaizua, gure bea zaudela pentsatzen dut, eta hemengo'andrek eni berri galdeten zitzazkeen heen umiak ea nun'tzien ba nik ez nakin nihaun buriaz'e. Alamanak emen, ni

beldurrez heen , han untsa ziren ba alamanak izaitia baina hemen enitin untsa hartu. Bakarrik zenauzu in hemene soportatu bearko.

Ze urtetan jin zinen hunat ?

A cause de la blessure. (erantzuna)

A ba me ze urte zen ?

En quarante et un. (erantzuna)

Gerla ein dut nik ein bear zena *jusqu'à* armistiza artio, *la veille de l'armistice je suis blessé*, baina anton zaarra beti bizi.

Gero huna sartu nintzalaikan beti ene sortetxia beti leku berian'tzen, ta ene sortetxeakoak'e'ba, salbu eta anea banin eta huare hantzena eta alamanian preso, hurare jin'tzen gero zenauzu nire arzaina, arzaingotikan berrize arzaingora ban nintzan, ta arzaingotikan kantonier sartu nintzan. Ba nikuste eniin bate demora galdu.

Zendako utzi zinin artzaingoa ?

Aire gaxtoak karri baitzazkaun ardi alde'at ta gero artako utzi niin arzaingoa eta gero *euuuuuh* jar'nintzan kantonier, ta kantonier baakizu lana idorra da, harria jo bear dela, harria joitean (ez jotzean) gizonake kompreintzen diila. Erten dute aunitzek palaierra eztela biziki eta pala hiiatzen baina aunitzendako ez asteko baina gure etxean asteko aunitz eitzen'tzen, nausia ere hain ginin bortitza eta nausi harek beti lan eskasin arrapatzen'tzaun, ta ordian guk bear ginin jo eta jo ari eta aunitzek berriz kritikutzen ginduzuten alde guzietaik hek bate ez'paitziren ari.

Ze lan ?

Acottément, bide baztertako errebidia eta gaineatekoak eo errekek, errekekake in bear baitira errekekake ba, nik uste errekek eiten gitin ba untsa. Bakarrik itzalpia urare maite ginin omen, omen hala erten zuten asteko bazterrekok, guk ez'paiginin anitz beatzen izalari gu lanian arzen baiginen aitzina, itzalian ala iuzkian hain'tzizaun laneko embaia eta laneko emaiia ez'paitu itzalak eta iuzkiak kentzen.

Bidiak eia bidiak gutiao ziren ba ta uai soera, orai sobera bide in duu eta bide horiek ein tuu baakizu etxia ta ??deitea?? bidia normatzen herrietako mera heeke hala erten'tzauuten. Ta orai bidiak ein'tuu mendietaat'e, ta mendietaat eitia bidia ondduak eta gaineateko guzia bertzek eemaiten al dazkaute. Ta guk, ardiak gune'atetaat aldaatzen'tuu eta heek bertzeat iortzen, ordian ezta batez giro horrekin.

Harriak hausten nitiin, *blocage*-aindako, uai eta *blocage*'a iten baita, uai ez'ta'iten *blocage*'ik geiao, *blocage*-a iten'tzen bakizu nor'tziren *blocage*-a eta harriaren ateztaliak mendietaat kartzen'tziren gizonak. Goikoetxea ta baziren olakoatzu izpeiko errebidia eta erditi'beiti eta ene demboran eina da. Ta iizpeiko errevide artan baziren arri metak aski andiak, salbu eta guk giiletikan gintiin jo eta jo eta jo eta hautsi eta nausia giilekaldian beti. Baakizu ze'erran nai din nausia giilekaldian? Obeuzu aantza'derra aztalian ??tau?? ez hura an izaitia giilian bear beitzu beti jo. Ta nik asteko atsa artu niin eta bos'minuta leenau partitu zitzaun eun batez nausia eta banketa'ainian jarri baintzen eta bertze'atek salatu nindiin.

Bo deuse, ba deuse zaun niz nausiakin, zautzen bainindiin nausiak untsa ta nausiare ola *bon à tout faire* bat baitzen eerra, ta harekilan uai bakzu zer? Harekin biaamunian untsa izaiteko paatzen ginakon bezperan auniz'trago, ta nausia biziki kontent bihaamunian berriz lana'aste. Nausiaakin beti ber, nausi gisa berri lanian ari ez'kinez gure ta arrunt eta ??mainutzikirian?? hasiak, mainan, orai bakzu ponxozian nola den? Ponxozian uai panoa bizkarrian artu ta altxa? Salbu eta ezartzen dute nun den ta beldurra eta han beldurra sarzeko lekian untsa da, beldurrak'tu zaintzen maastia. (emazteak?)

Gehexan "Arrixilo" MUCHICO: 17:10 - 30:00

Bainan eztut balentria'andiik'in ez, ez'tut alemanik il ez, ori badakit. han'nintzan alta aski aitzina lehen-leen liña'nintzan beti. Bel/3/ikan barna eilia niz. Ba, preso ez'painintzan ein, bakarrik, espakatu nintzen, ene lau launekin alemanen artian hamairu gau, eta zeretik asi *Chatillons-sur-seine*-etik asi ta *Clermont-Ferrand*-ean sartu'inen à *pied*. Ba ! Ori dieus'etzen horren eitia izaen ez'palitz izan erregebidiak pastu bear'ziren, hurake ba, *les fleuves* ; paastu giniin *la Loire*, hura barkuan paastu giniin, laborari batzuek paastu ginuzten. Ta gero *la liée*, hura frango nekez, zui'uziak jauziak, barkuak urak eremanak ta hiru eun eman gintiin zubirik ezin arpatuz, baginakiin bazela zubi bat bera *pont de fer* bat e'tzena iauzia ta zomait orenez zaindia zela berze'atzutan ez, eta ola ta euerdiatez arriatu ginen'an ta mazte'at atea zitzauun *maisonette*-a'atetik, arek niarrez ea preso einak'inen, ezetz ez'kinela ez preso einak oono seurik ta, oioi aren etxe giillian ehunka bazirela, alemanak bazkaiten ai, ta amazapi urteko neskatoat beti ura borxatzen zuten beldurrez'tzaon, ene laun batek erran'tzakon ba, gur zure alabaan istorioak ezkitu interesatzen, naiau ginuke jakin zubi ori zaindia den bai al'ez, ta erran'tzaun ba, harek aitu ziinez, e'tzila berak kusi bainan, baziela orenak guardiatiak zienak ta bertze orenak libro, ta bakarrik sekula izaitekotz libro, ordion zitakela'azkaiten ai ziela ta zein giniin abiatu ginen zubia paastera ta untsa arriatu, ta ura paastuta frantzia libroan ginen, ordion siestaat ein'nin o tarteatean lorietan.

Berrooi eun paastuinin caserne-a-atean, demobili/z/atu bear baitzin txeat jiteko, ta gero berrooi eunen burin trankil ginen. Preso eiteko lanjerrik geioez ta.

Treinez ba, handik'unat treinez ba.

Ba ortaz, ezkiniin deusen faltaik ez.

Abisatia nitin eldu'inela, letrak eiten gintiin salbu frantzia libroan sartuta aitzinian ez'kinien zeit izikriatzeik eta pentsatzen.

Biziki baliosa *Commandant*-ta, eman'tzaun *considérés comme prisonniers* ginela, *mais on est pas prisonniers*, ta harek kontsideratzen tzaula e'tzila geiau deusen manatzeko dretxoik gurekin, presoner karriak ginelakotz, minan hak kontseilatzen'tzauula balin bazen kuraiosik, eta basa bizi baten artzea, bear gintila utzi hiriak eta bide'eerrak ta hartu bidexkak eta oianak ta mendiak ta holaxe eun bat paastu ginin bier (Pierre?) ura aitzinean ta bertze ez'kinen ez aniz berrooi eo laun ginen bertziak dena'galdia gintiin. Eta ek giiletik ta biaamunian erran'tzaun oai ea nok nai giniin haren segitu, ta denek eria zautu, ta niarrez asi zian; gaixo aurrak zoin maite nauziin, nike maite ziuztet ba, bainan guti girelaik sobera baigira, alde'atetik goseak'ilen gitu, ta berzetik alemanek kusiko giuzte, bear duu partitu edo hamarnazka berein-berein hoeen-hoeena bidanazka erran'tzaun, ta olaxe partitu ginen borz, ta borzak paastu ginen gu, ta jin omen'tzen kompainiako launi'gaztenaekin hooitabi urteko mutikoatekin, ta liotenanta oloondarra giniin ta arek, urare paastu zen, bere erritarr'atekin ura, oloondar mutikoatekin, ila da aspaldi gaixua, ta holaxe.

Ba ni ene erritarra laun bat Banka tunioneko, zera uai hila da hori ameiketan, joan den urtean ila da, Jean Pierre, Arambel, ta harek erran'tzaan, goernementa sartu gintilaik, nauka bia'parti giten? Ein'tzaan arek, ta ba ba gootik, ni nornaiekin partitzea niauk ein nakon, ta hirekin nehorekin baino nahio. Alabaina herritarrer, eskalo puxkat'e'azin kapoala zen ta, hola zen *brevet*-a'azin, ta muntraekin brillanta'tzen'e bazakin ta, zera kartaekilan, kartaekin ta muntraekin jin ginen lehenbizian, leemizian kartaik'e ez'kinin, gero kartaat, holaxe ta gero jende ??...?? zautzen giniin, gaua gaua beti jendeekin paastu tuu. Zomait eztiela gauaz mentuatu jendeta, bainan gu, ze nahi zinin eitia amahiru gau-eun jan gabe ez'kinien eoitien'al, obliatia zinen noabait erretiatzera, ta ez'tuu beine jatera galdein, hori ez, galdeite'iniin gaua han paasteko lekia beitei izkin batian, ta ordian denek untsa erreziitu giuzte salbu batek, batek zernai erran'tzaun, ez'kinela eiazko frantsesak, e'tzutela egiazko frantsesek armaik kitatzen, ta guk armaik ez'kiniela an ta, ez'kinela eiazko frantsesak, ta gero ein'tzin nik baititut an, baititut bi seme, hek nun ote dailtza ein'tzin. Nun

eiliko diren ? Gu'ezala hal duten bezala erran nakon, ta ezetz ez ! Hek e'tzutela ez armai'kitatuko gu'ezala, hek an eonen'tziela il edo preso ein artio, ta ez'kinakon arrapostuik eman geio etziin balio, ta beti gaua haen zerean paastuko baiginiin barroki'izkin batian, ez'kinin menturatu galdeiterare, ta joan ginen urruntxeao ta errebide'azter batean, oren bat seurik eon ginen alemanen artean pasaiaik, utsik ezin'arrapatuz errebidian, heldu zen eldu zen pasa'aala alemana, ta gero pentzeat paastu ta oian ixkin bat, arrapatu'iniin laorari etxeat, iluntze'ai orduko tenoria zen ba, handik goiti ezkinin aise arrapatuko, ta han arrapatu gintin bi xaar, ta oh ! Ah ! Oh ! Etziztela izi ez erran ginien, ta frantsesak'tziztea? Ta ba ba prantsesak gira ba, ta ea nola eldu ginen ta nundik eldu ta berriak jakin bear ziuzten erran ginazten gure zera aneak ta etxean'tziuzten gauzaik hobeetaik jatera ta eaten eman'tzauuten ta gaua hantxe paastu'inin ta biaamunian berriz partitu ginen, ta denetan hol-hola ite'iniin, gaua paste'gintiin jendeekin ta, bakarrik ez ofetan ez, ez'kinien libro ez ofetan etzatea, ez'kinin naire, hain ginen zikinak eta zerak.

Oian ixkin batian paasten ai ginelaik ??derrepente?? gu errebideko bidekurutze'atean arrapatu gintiin bortz emazte gazte, ta *bonjour mesdames* ein ta gu aitzina usaia ala'iniin *allons*, ikusten gintinean run run run ta kurri, ta giiletik jin'tzauzkiun ea nundik eldu ginen, ea *front*-eti eldu ginen, ta baietz ba, *front*-etik eldu ginela, oioi eta ea zoin erreximendutaik ginen, eeke senarrak an'tziuztela, ta jakin'nai zutela gurekin bazen nehor, ta erran ginien ze erreximendutaik eldu ginen ta, etzela ez haien senarrekin, ta gero hek hek ein'tzaukuten ?? honneu de ...?? ederren-ederrena eta kusi zuten urdea'aino zikinagoa ginela ta, zera, ereman ginuzten zoin beren etxetat ta erran'tzauuten bear ginila aldatu, baina guk ori ez unartu nai, ezkinen menturatzten baakizu konfiantza'artu'ear'tzen, ta ni ereman nindiin xarmanta zen mazteat hareke biali etxeat eta amare onoo mazte gazteazin, ta harekilan elekatu zen ta ereman'indiin ??sularda?? ixkina'ateat zu beauzu bizar'ain, nik emanen'autzut bizarren eiteko tresnak senarraanak, ta ba niaunake emen'tut erran'akon, beti bizar'ain nin ba, ura gootik unartu nakon, gero erran'tzaan uai beauzu aldatu, a ori eztautzut unartzen erran'akon, zendako'ez, eztuzia nitan konfiantzaik ? Ta erran'akon jar zite ene plazan, konfiantza norekin artuko'uzun, konfiantza ar ditaike jendeaekin ta ez'titaike, enian on olo ola ta aldatu ginen, kusi niilaik

bertzeak'ainak ni'e aldatu nintzan, ta arropa'uziak txuitu zauzkiuten, eun bat oso osoa bestan atxiki ginuzten, ta ez'kinuzten utzi nai ez partitzene oe'inila han beren eoitea, eta berdin sekula ezkinela baionan arriatuko, hain ginela urrun ta ba, ba oai artian eldu ginela ta bear ginela entseatu seurik, ta kusi zuten *têtu* ginela, ta utzi ginuzten isi-isila *allons*, ta man'tzaazkiuten *musette*-ak bideko jateko zeteik, pantalon pare'ana aldatzeko, eta han barreatu aitzin berria nola baziren eta erran'tzaukuten baziela antxe auzoatean kusi nai ginuztenak, ta sosare emaeen zauutela ek joaiten bainen trankil izaiteko, ta nik baniin sosa, niaundako eakusten'iin baniila ta, bertze bankar'arek ere ba, berze hiruak joan'tzien, ek finitiak baitziuzten, kaskoina beti gastakorra, beti ek eman'tzaeten nikuste eztaikit kiloat'xokolate seurik eta, sosare ba eztaikit zenbat ta ezkinin jakin bainan sosare eman'tzeen, mutxurdin batzu ziela ta geo olaxe partitu ginen ta arriatu ginen, nolazpait. Ta hemen gira !

Xemartin "Mendiberri" SORHONDO: 36:36 - 43:50

Eztut sekula haatziko, mezaa ninduan, ta ordion baiten baiginen meza nausira baiten baiginen ta xantrea baginiin'rramuzpe xantrea argin bat zen. Ta ura zen erriko mutila, ta Otsoartzera, Otsoartia or da Balbeeneko parean (-ko parean?) xoko'atian etxean aa beiti jina zelaikan : errak ! Beala itzuli beauk giiliat ! Beala! Erran'akon: zendako ? Beala itzuladi giileat ta hail, mandoa beauk bildu ta atsaldeko lau'onetako Baigorriko plazaat eraman beauk ! Gerla asiuk ! Mekauensos, handik itzuli ta mandoa mendiana giniin, or giniin Usaitzako mendi'ortan or'eiltzen zen ta, nafarreanean'oitikoan erran'zaaten to ! Gure mandoa're beauk karri !

Joan eta or eztaite bate, uai eniz orritzen mandua nun bildu niin mendi'ortan, ta beti niau'mandoaekin, Baiorriko plazaat *requisition*-atzera

Ezez emengo berze etxetan manduak ziuuzten guziak an'tziren, denak an'tziren, ta Baigorriko Piarres aotza, Larzaal, haen semia ono or da bizi, ura zen abere estimatzalia. Harek'ee ze prezio eman'da estimatzen baitzitin aberiak ta, ni

mandoa ono ez eosi zaarra mandoa, iziarri gustokoa nin mandoa pollita, mando ttipi'at, are ! Joan'tzen ola. Handik etxiat jin, handik bi'eunen burian niaun ama utzi nin bere etxian.

Noat ereman zintuten ?

A libourne ereman ninduten ta'an beztitu ta *à mont medi dans la Moselle* an da, aat erran dauzut eta han *dans les voutes* lo eiten giniila. Lana errexu zen ba, trantxare eiten, *des tranchées anti chars*, aleiako estakuru'atian ??kartexaze kargatiain?? ta ek ez'kintin urratu'ear bate, bear gintin beiratu ere. Horra gure ??errola?? zer'tzen, han untsa ginen ba, bainan zorzi urteen burian, erran'autzut ostion, zortzi ilabeteen burian, *le dix mai* bombardamendiak errana'autzut ostion han pentze'atian nola'arrapatu gintiin, ara, ordion *au mois de septembre* joana, *le dix mai* asi zen guetako gerla. Gerla dembora untsa pastia duu ba seurki ez'kinen gaizki, errana'autzut gure gambelak eta guziak kafiaikin kuzten ginitiin. Bakarrik hat kusiaugu gerla alemania'bat han bombardamendietan ta *usine*-an'e aizan'aiz *strasbourg*-ra bildu ginuzten, eztrazburren baginen alimaleko andana ta alimaleko andana ta gu berzeaikin ta gu hoinberze ez'tie atxiiko ez, ez'tuk posible, ta uai libratuko gitie ba ta ohitzen niz Xan Berxnanto hantzen, Bankar bat bo ila'da uai ta ni partitzen; adio ! Uste zin harek ni etxea nindoala, ta maztiaen adreza erran'tzaan, ono burian dut ; bordalen duk, errakok untsa nizala, *rue de l'église*, arrapatukouk, ta errakok iziarri untsa nizala. Harek uste izan ziin ni etxeat heldu nizala, ba alemaniat hane borz'urteen burian giileat.

Ta leemiziko baginen lekian zorriake baginitiin, ta anxe ohitzen niz laborari etxe'txar batera ereman giniuzten erri txar batera, hamar bat presonier ta han buruzorritu, ohitzen niz nola eon ginen, ura arrapa denak labe'atea pasa'tziuzten zorriengatik beztitu ta are ni ta berzeat, ni etxe'txar batera, mazte'atzu ziren bizpairu beiekin ta ni laborai ??txartala??, ta han, hane bete in'tzen auzoat oi'uiterare han eniin demboa'andiik'in ta *Nuremberg*-en bazen etxalde'aundi bat harek laboraria nahi beitziiin da bida bazitiin laborariak, bi presonier. Bainan baño bezik etzen laboraria, ura de *Rouen un instituteur*, bakarrik sorzez laboraria baitzen, ordion goseaengatik denek nai'tzuten

laborantxaa ban, laborari nai zuten ein, ta berzia'ezen bate laoraria ta, nausi'andiari galdein ziin doikei, eztait noat nun bear'tzen lekiat direkzioneai doikei berze presoner bat. Ta ni etxe ttipi artaik, beala'an nitzan, ala, ta han arrapatu niin erreint'ura laorari harekin pastu niin eztait aniz'tembora an, etxe'artan, laborantxan.

Ba gure lana, hoitaamar'ei baziren etxe artan, denak estekan uda-neu, ua ta neu, *le vacher* espresa bazen, espresa bazen le vacher, gu, zerri alde'at'e bazen, zerriak eta, aste'uziz zerri'at iltzen'ziin nausiak, ta atsetan gu bi presonierrek launtzen giniin, bearko ! ??Santienla?? gure sahetsean, guri beha, noiz joaan ginen, zerri ederra bazen larrutzen giniin, zerri larriaekin eiten baitziuzten ba pantalon'ta, paltoak ta ori denak alemanian botak ta zerri larruz einak dira. Gure lana laborantxan alorretan ta belarretan ta beti kanpoan lanian utilaekin, utilare bazen antz ohitzen niz.

Ez, han beti bazen zeijatekoa, han pastuut zingarra gordina bazen eo eosia edo patata ta aza, naikoa'azinin goseik ezta'izan.

Pilale "Oihanxelai" LAXAGUE: 00:00 - 15:00

Noiz ba aspaldi sortia niz, ta Alduden sortia niz, ba ba Oihanxelaian. Bakarrik eniz beti beti an eona baina kasik ene demora guzia, armaan pastu'aitut urte guzia.

Alduden eskolan eilia'gira Esnaaxun, Esnaaxu da aldudeko kartier bat, baakizu, Esnaaxun eilia'gira kartier, baa, eskolan.

Ba ba Esnaaxun bazen hooita geiau aur bainen, errentsa zen, ba errentsak bida're ezautu'tut errentsak ta heekin eliak gira gu, eskolan, eili gira bainan guti ikasi giniin.

Ez ez ez ez, ez'kinen eun guziz joaiten ez, aiaiaiai gure etxian orduko jendek eskola'ano naiao zuten lana ein komprentitzeuzu ? Ta gure etxea da kasik ba nik erran bear banu, Alduden etxeik lanik geiena den etxe'at'e, eremu andiak'padira, zernai lan bada aziendak berdin baituu ardi bei ta istorio, beti zeait eiteko bazen, eskolatik ??iorziz?? joaiten ginen ba, eztaiz ze adin ginen, gu an arreba zaarrenak, arreba'at banin urteat zaarrau, leenik gu'iak abiatu ginen, ta zemat urte artio enaiz xuxen baina dozena'at urte artio eili'inen ba. Baina ez eun guziz ez, latzun (lan zumeit?) puxkaat zutelaik etxekok hura bear zen eta ein, ta hola eilia gira ta ordion pentsatzen duzu ze kasten aal den. Beti eskuaraz mintzatzen ginen, eskola barnian ezkinin libro eskuaraz mintzatzia, baina gure artean denak eskuaaz ai ginen, erriensa'at'e bainin Lafitte izena ziina eskualdun garbi garbia, hurare aurra'bezala eskuaraz, ordian kusten'uzu ze kasten aal ginin an ? Dieuse ezkinin kasi, ba puxka'at kasi ginin beti bistanda ! Leitzen'e kasi ginin, frantsesez, bistanda ez *faute*-aik gabe, baina ikasi ginin puxka'at eta ixkiriatzan'e, diktiak eta iten gintin frantsesez, hek egiten gintin bate *faute*-aik gabe bistanda.

karkulatzen ere ?

Hartan guti, kasi duu pittat, hau da *addition soustraction* ta *multiplication* ta gero *division* ta horietan hasia'ginen ta heetan enintzen trebe, ez, eta hartan gelditia'gira.

Ba, ardura bazen zerbait eiteko, honberze azienda den lekian, partikularzki ardia bazen gehienik, ta gu mendian bizi gira, beti bazien faltatiak handik utzia bezperan gelditiak edo hau edo ura beti'azen zeait egiteko. Gu bainen zaarenak, gure aitak beti ni nindiin eta "hail hango ardiak behazak, biazkik, edo horkoake miazkik ta, beti . noit eiteko" ? Ta beiekine beti neuian eur aunitz'e xeatzen ginin, erreparoa ere bainen, ta oian anitz'e bada gure etxean, batzuk artzen ginen beiekin atzur xeatzen ta beti bazen eta ordion beiekin. Izigarri maite ginin, beiak uztartu ta pentsa ! Naiao ginin ba eskolat joan baino hoitara joan, holako auniz paste'zen, estakuru ttipiaekin atxikitzen gintuten etxean, baaizu, gero artetan joanazten ginuzten, ta ordion joaiten ginen, ta ola gure

eskolako demora ola paastu zen, eztait dozenat urte artio edo zer segitu ginen, ba ez ginen uai bezala hooi bat urte artio seitu ez.

Ba ordion lanean an, etxek aitatamaekin ta, oioioioi etzen lana falta an e, baatzian hau, bertzian hura, hango hesi'itiak eta hura kartzekore turri txar bat ban bear zen nunbait urrunao, bear ziren denak pentzea'karri denboa'aetan, pentzea ekarri ta gero belarra ateatzen zin ordion ura etzan zen leku hortan. Etzen uai bezanbat ??uañuko?? gailu eailtzen, etzen ez seurre, ta hemene ene ungariaen eosteko sosare bear zen ta olako lan pruskoetan zernai denboa pasten ginin. Ta ola beti, ba ez'kira alfer eonak ez.

Artua iten zena ?

Baina, arto aniz eiten zen gure etxean, arto anitz, artoa'eiteko demoran izaiten zen lam'at artoa'eiteko denboran bagintiin alimaleko ??elmiñak?? artoa'eiteko, puska'atzutan leku pollita'zien baina beste *pente*-a, eta puska'atzuitan arrunt *pente*-ak, ta demora artako zaarrekin lanak maneran bear zuten ein, *pente*-a tzar'oitan izaiten zen lan bat, beien iraultzian aitzinean azpitik eiten da kentzen da puska'at ta ??oriat largo de?? lurra, ori dena beiekin heltzen al delaik, karruan kargatu ta tiatzen dira goiti baina *pente* aetan beiek etzen karroak eailtzen al ta bizpairu aneia bainen, artze'ginin aitag saskia bete ta berze hiruk gainekondora karrean ta zarrak'konduan ze bide puskan'e, alimaleko ??lunaxatzen?? ginin, gaina ez'pauzu urtuz betetzen arren lurri'gabe jartzen da. Ta artako lur ateatzen ba bizkarka arzea kasia duu zer den, alimaleko lana izaiten zen.

Goiti eremaiten ginin an ta dana saski'train kontra lerroan zarzen gainez-gain lurra izan zain gainean kompreniuzu ? Leenago danak ? ala zien. Ta gero alorretane zikina izaiten baitzen zikin ua leenik ariaekin beiekin bear ginin garbitu ze haatik hunata bearduzu beien urratsean, eremu haundia delaik ainan, ba hartako bazien eremu haundiak, baginien hektaraat paastuik, ta berzalde berze hektara zeit bazen dena *pente*-a-zar ta leku tzarrean ta halakotan lana jori iten duzu izigarri'e.

Leku penosak dituzie ee ?

Gainetan han ola *pen-te*-a den lekian doble lan baino geiao bauzu etan, ta lurrak arrañatzeko ta malda orietan han iraultzen asi eta beiek eta zangoak sartzen eta lurra itzulipurdika badoa beiti, beti beiti elduda, gero lurra beauzu xeatu hainbat, ariakin gero sumilaikin oitan denetan bear du zera pastu lurra xeatzekotan ta horitan pastu nai zirelaik lurra mokor aire'uzia dena beiti dua, komprenitzen'tzu ? Ta gero heek xeatu ta aal guzia palaz goiti botatzen ta mokor-mailiak hartzen pala gisako zeatzu bagintin, heekin zanpa-zanpa undarrean dena pasten ginin eskuz terrenu guziak pasten ginitin ala.

Nola deitzen zinin pala hori ?

Mokor-mailia erten'tzen, ala aitu izan'tzu, mokor-mailiak badira onore hetaik kotxia eta sailka-sailka artu gainetik eta ekin joka-joka zartzen ginin lurra untsa xeatuik'e aatik baina bear da horien denen egiteko denbora bear da, lana jori iten da han.

Denbora ta jendeare !

Baitare, baitare, ordion bainen erreparo geixao, Arzaina atxikitze'inin beti ardiekin baina berze gisa're bazen ba ardura mutil bat gure etxean ta eskas baldin bazen peoinake ekartzen gintin, espania alde hortatik, espaniatik hurbil.

UREPELE

Albert "Zanka" ELGART: 00:00 - 15:00 / Laborantxaz mintzo dira.

ze laborantxa klase zinuten? Olo ola.

Etxean, Zankaenean Urepelen aorrilaen ooian ta mila beatzieun ta oi't'amairuan.

Iutanoi'ta lau.

Beti beti. Soldadokoa, ta bertzeik dieuse, sodadooda ein ta berriz etxean.

Beti laborantxan.

Olo ola, olo ola, *élevage*-a *allons*, azienda ta belar eta arto ta denetaik, uai eztuu iten artoik, uai belarra.

Beiak, ardiak eta beorrak.

Aizan niz kotxia, leenik aitai laun ta gero niauk, aizenda iritzeaekin aal'tzen eiten'tzen ordion etzen erremedioik, ta guauk zerbait einez eiten gintiin, uai sukarra eo zeaitekin jartzen bazen geien-geienik sangaatu odola kentzen ginakon bi-iru litra.

Ba lepotikan, beier lepoti'korda zarri ta zaina armaazten'tzinakon, ta gero bazen baginiin kaniita espresa, kanit ura zartzen'tziniin ampulaen parrean ta makila'atekin kaska'at eman ta zilatzen'tzauzun zaina.

Ganita nolakoa zen? Ganita, oai erraiteko ganit ura ez'ta berze kanit'ok bezala sakelako'ok bezala. Badu puntta espresa ortako, eztu berzeik eiten ori beizik.

Baut, emen da etxean, bainan eztuu zerbitzatzen uai, ez.

Ori aitak eili ziin ta aitzineko ??usea zenaina zen ori?? emen etxe untako nausiaena gero aitak eili ziin ta nik, nik ez biziki kotxia ola erraiteko bainan nik ez biziki aitak eta geiao.

Ez ez ortako, etziin bertzeik eiten aal'e arek, ortako zen.

Xorrotxa, xorrotxa bear ziniin baina arek baziin uai bertze kanit oik bezala ??be'ite ziin?? puntta bat, ta punta ura zartzen ziniin zainaen parrean ta giiletik joiten ziniin, ordion zaina zilaazten zauzun.

Ostion erran dutan bezala ta mutur xorrotxaekin bazitiin hiru, hiru lama, gero bida zerbitzatzen gintiin, bat beindako ta bertzea ttipixao baizen ura zaldi eta beorrendako.

Larria meatxao baitute beorrek, artako.

Ez ez'tuu ardiendako ez'tuu sekula zerbitzatu, ardiak eiten gintiin sakelakoaikin.

A ori ez'paitakit nik ??etzakat?? erran, beti kusi'ut emen.

Ur irikinean, urian zarri ta irikinaazten giniin ura ta artan.

Beti, aldi oro, zerbitzatzen giniin aldi oro uraekin.

Bida asteko ba, ba ba, bietaik iru arte ori beti, zortzi pinta baitu beiak.

Bon, sukarra seurik apaldu eiten zitzakon, ba ba frango, frango sendatu're ba, ba ba.

Ura jiten da zemait aldiz, leen ez'peizen urik uai bezala barnetan, ta emaiten'tziren ureat, turrira, turrira edo erreka'atera ta partikularzki neuian, hotzaekin ta *congésionatzen'tziren*, ta geienik ordion izaiten'tzen ori, gero sukarra bertze gisa, berze gisa izaiten du, izaiten da. Baaizu horiike gu bezala dira, ze gisa iten aal'tzaiko, zeait ez untsetaik baina un eiten'tzin arek, odolaen kentzeak un eiten'tzin.

Barrokian atxiki, ba komunzki? bi eun, gero paasten'tzitzakon, bear'zitzakon ein, bi eunez ola puxkaat zainen'tzen bainan gero untsa baiteko bear'ziin jaten ta lo normalki asi.

Ba ba, jatera beti. Uai gutixau mentuaz baina jatera beti, berak ez'paiziin boondate aundiik izaiten asteko leemiziko eunian baina bigarreneko komunzki asten'tziren.

Ba, aizanaen medioz beti, ez'tuu eskolan kasi, kasu in bear'zena zintzur korda unkitu gabe, ura zen. In'aala mutturra puxkat goiti zarri, uai biriketaa duan eta zer ori, ori unkitu gae kasu'iten'tzen in'aala, ori zilatu gabe. Gero xilo ura, zarzen ginakon izkilima'atekin, orai izkilima doble'at larria, uai zilatzen giniilaik, ola aski ziilaik, aski giniilaik *allons* laxten giniin korda ta gero ixkilima'at paasten giniin xilo artan ta kentzen ginakon beiai buztanetik zurda'at ta ixkilima aren giiletik ura zartzen giniin tinkatzeko ta gelditzen'tzen odola.

Ba ba ba ba denak suian edo zeaz ur irikinian eta pasatuik salbu kentzen ginakon zurda ura bista andikan beala iten ginakon zurda ura, ura larriain gainean gelditzen baizen. Berzenaz ur irikinian paastiak.

Pollikixao beti uai, ordian ura zen, ta ura atxikitzen ginakon bizpairu lau eun, ta gero ixkilima laxtu ta kendu, tiratu.

Ba ba hori bera.

Ez, sekula, sekula, eniz, ez sekula ohituko nitzan, ez'tut.

Ba bear da gazte'at, gazte'at bedein bertze laun bat bedein beazu beia atxikitzeke, *voila* bi gizonek iteunte, baina bear'tutzu bi gizon.

Aendako ala-ala aendako bi laun bear'tuzu ba, ala horren eiteko, gero zaldian etzen anbeste gertatzen ori, kasu ori, bertze kasu batzu izaiten'tziren, alare bi laun bear'tuzu, bakarrik ez'tu inen.

Beia sukarra badiila, sukarra artzeakin beiak, bearriak arrunt otz-otza jartzen zaizko, ta *bueno* guk suur mozipira erten duu eta suurreko muttur ori, ori arrunt

xuku-xukia, ori izerdietan atxiitzen du beiak, *bueno* sukarra diilaik xuku-xukia du ola, ta bearriak oztuik izaiten'tu, guk ez'kiniin sukar artzekoik usatzen, ura giniin.

Buria apal-apala ta zaun da fite, zaun da ba ez'tela untsa.

Ba, ba, eiten gintiin.

Ardia guk eiten duu bei azpitik, ala beien onddotik, pekaldetik, kanitaen mutturaekin eaki pixkat ta andik eiten duu guk.

Batetaik aski da kartzen badu zuk kusten duzulaik kartzen diin, uai artia delaik puxka'at obliatia izain'tzen mentuaz bietaik, berzenaz batetikan karriko duu, aski goiz atxemanez'keoz asteko.

Nun ez'ten arrunt artia ba, artia balin bada puxka'at neketan'e beti, neketan, beti karraazten dakozu puxka'at, ta beazu karraazi're zerbait gisetan beazu karraazi.

Angèle “Xokolatero” HARRIET: 00:00 - 18:00 / Etxeko xokoleta dendaren segida hartu zuen, eta hortaz mintzo dira.

Ba ba beti etxe untan, Urepelen.

Ba! leen zernai ofizio iten giniin, eiten giniin xokolatia, eiten gintiin karameluak, eiten gintiin boladuak, eiten gintiin xiriuak, eiten gintiin turruna.

Boladua edaten'tzen, leenik xokolatia edaten'tzen eta gero boladoa edaten'tzen aren giiletik. Hura zen arroltze xuringoakilan ta zitroinaekilan eiten tzen gauza harro'at, eta ura ur freskoan zartzen'tzen ta izigarri goxoa zen edateko, ez'peitzen uai bezalako edariik *allons*, edari edo *orangina* edo ze horietaik bezala.

Xiriuak berriz eiten'tziren, anitz eiten giniin leenau eiten'tzen elizeat eremaiten gintiin alako xarea'atean, xirio firurikatu batzu eta ek pizten'tziren

Ba ba *bougie*-ak ez olako erronda'atzu bezala ziren eta gero *bougie*-ak baino andiagwak xiriwak *des cierges* eiten gintiin.

Horiik elizako're zirena komunioneko ta're eiten gintiin.

Ba betidanik zauutu'ut maasina ba betidanik.

Ba ba frango jende eiltzen'tzen, ba, beti uai kurri joaiten dira, ta ordion etzen ez otoik ta dieus eta ordion anitz jende jiten'tzen emendik aldudetik eta bankatik ere ba, zeren ta turrunaen eiteko anitz bankar jiten'tzen eztaekin. Astoz kartzen zizten zakiak.

Bai iten giniin klasea baino geiao baina uai antzixia're'ut bainan hori ezti ori urtaazten giniin ta gero horri naasten gintiin hurrak edo eztakit eskuaraz nola erten den amanda, hara amandak naasten gintiin. Ostiak'e guauk eiten gintiin ta leenik ek zartzen gintiin maai baten gainean ostia oriik eta gero ezta ta naas melaza ori zarzen giniin gainean ta gero ostiak berriz gainetik ta gero pikatzen giniin, eta gero berze turrun klase'at eiten giniin berriz, turrun zuria erten giniina hura aatik amanda eiten giniin, irintzen giniin, amanda. Eta gero hari emaiten ginakon zukrea, ziropa eta gero zemait aldiz zartzen'e gintiin fruitiak. *Des fruits confits* ezartzen ginakon artian. Ta gero gustia emaiten ginakon edo zitroinaekin edo... anitz anitz bate eztut nik hori ein baina kusi'ut eiten ba.

Hori leen hemen bizi zen. Aitatxi eztut nik izigarri bat zautu, harek bazitin langile'atzu, gero ottok ta gero gerla dembora jin'tzen ura ban'tzen ta amak ta nik.

Ba pixka'at baakizu uai aantzia'titut ba baina.

Eztakit eniz ohitzen ez, etzait eldu burura.

Turrun ori egurri ingurine hortan saltzen'tzen beti, ez'peitzen anitz ba, uai bada zernai klase ordion etzen ba, ordion saltzen'tzen erreski

Ez bazakiten bazela ta jende anitz ere eltzen'tzen ta erosten'tzuten, berendako ta aurrendako, gauza sanoa zen.

Ba ba izigarri tzarra nik, tzarra zen ta dorpea izigarri.

Ba xuxen eniz ohitzen *la côte d'ivoire* edo nundik karrazten'tzen ori baba ori eta badakit alimaleko zakietan kartzen giniin ta gero hura leenik *la fève de cacao* baba ura bear zen berexi zeren'ta arek baitzitin porroska'atzu, ta hura baginiin maxina'at aiziatzeko maxina'at eskuz eiten giniina, eta leenik ura untsa garbitzen giniin, aizeatzen, ta gero baginiin erretzeko untzi aundi'at'e

Ba bazen ba eskuz eiten'tzen, nola errain dut, eskuz erailtzen'tzen erroda aundi bat eta *enfin* arrunt sinplea zen arrunt, ba arrunt sinplea zen, leemiziko zeretaik *allons*. Nik ez dut besteik zautu emen.

Eta aizeatu ta gero erretzen giniin, baginiin haren erretzeko *boule*-a aundi bat, ta gero artan erretzen giniin.

Ez labia ez alako nola errain dautzut, e'tzait eldu burura're olako *un grilloir*, padera bezalako haundi bat, hara, uai zembat kilo sartzen'tzen an ez'tautzut erten'al baakizu.

Hori eletrikaz erailtzen'tzen bakarrikan ori berotzen'tzen braseroakin ta oriik izigarri tzarra'tziren ori ikatzaekilan berotzen giniin ta zernai buruko min baugu erailiik.

Ba leku ttipia zen ta gero ikatza zen ba han ta arek botatzen ziin *gas carbonique* edo hori. Eta gero erre ta botatzen.

Eniz ohoitzen ez bate.

Ba ba ba itzulika erailtzen tzen, eztakit ea beti alderdi berera edo bi alderetara erailtzen'tzen ez niz orroit ortaz. Eta gero baginiin eihara bezalako bi harri aundi baziren, eihara ttipi bat eta artara botatzen giniin gure kakaua errea, eta harek lope-lopea likido'at botatzen'tziin. Eta alimaleko untzi batzu bagintiin eta heetara zartzen giniin ura, hotzaazten, eta gero ura hozten'tzelaikan pikatzen giniin, alimaleko pikadera'at, ba oriik dena'moda zaarrekoa'tira.

Ba bai azkar bat zen ta gero kaniita aundi bat alimaleko kaniita.

Bon eztakit ori nik, berroei bat *centimetre*-a bedein baziin ba harek, ba kanita lodia zen, xorrotxa're frango, bear zin ba indarra aren pikatzeko.

Ba ba ba ttipitan *enfin* puska polit batzuetan, ez'kintiin ez alimaleko puskak eiten aal guk maztek. Gero hori zarzen giniin, erraiten ginakon *melangeur*-a eta han zarzen giniin ta gero uai ez'tauzut erten aal zemat zukre ta baakizu aantzia'titut'e. Ta ordion hori naasten'tzen alimaleko pilota'atzu eiten'tziren.

Zukria ta kakaoa, ez'tauzut erten aal zematna.

A zemait aldiz eia *beurre de cacao* zuri bat zartzen ginin maina ez ardura ez'tut ardura kusi eta orren zarzen, eta gero ori naasi ta zembait aldiz zarzen ginakon *enfin* gustiaendako *vanille*-a, edo berzenaz kanela're ba oitzen niz zarzen zizaikola.

Ez errautsian ba, errautsian emaiten ginakon, eta gero baginin *laminoir*-a eta hartara bota pasta, ta harek xahaltzen zin, obeki leerzen ta gero pilota aundi batzuitan, maai batzuitan'tzarri ta ori pizatzen giniin, ta berze'atzuetan berriz pizatu ga'bagintiin moldeak heldu baitzen justu-justia neurria, *enfin* bear zen neurria eztakit berreun grama edo berreun ta berroi'ta'mar grama bagintiin oitzen niz eun gramako plaka ttipi batzu. Eta gero horiik zarzen gintiin untsa ta gero argitzen.

Argitzen, ioz, eskiekin ioz, eta gero horiik hotzaazten giniin, xokolate plaka horiek hotzaazten gintiin.

Horiek lurrean, *fin* baginiin leku bat espresa horien otzaazteko etzen bear ez sobera umi're etzen bear, etzen bear ez beroei ez otzei, baziin temperatura'at'e, ta gero ara gero horiik moldetik atera ta paperetan zarzen gintiin ta'ero saltzen gintiin emen boteian, bosna liberaka oitzen niz saltzen gintiila, ta gerla demboran'e saltzen giniin, baiona'at'e iorrazten'tzazkauten zeren'ta ezpaitzen an biziki, ala zen gure, hala giniin mania.

Ta etxean bagintiin gure etxeko izeneko 'irizarri' izeneko paperak *chocolat de santé, chocolat à la cannelle*, hara zeren'ta ordion anitz xokolate edaten'tzen.

Etzen berzeik xokolate beltza zen bakarrik, ez ginakien'e berzeik eiten, bakizu gure moda ori.

Nola jaten'tzuten ba hori anitzek urian edo esnian.

Urtearen barnean beti eiten'tzen ba, bero ondoan, gero ondoan ta ondoan ein izan'tuu guk eta *les boules crème eta praliné* ein izan'tuu gero ondoan'e, ez eta, xokolatea utzi ondoan'e ein izan duu ba.

Xelextin "Zinko" SAROIBERRI: Ahotsak.com-eko grabaketaren 18. pasartea (2'22) transkribatu dugu, Xalbador bertsolariaz mintzo baitira.

Gue etxea alegeraia zen. Ezen orduko eta, e'tzen ez nihune ono baina radioa bazen, eta gero *haut parleurs*-ak zariak ziüzten saletan, eta gero ordion eiten ginin *diskak* zari ta eiten zen ba musika, iandetan bade musika iande atsaldetan, a ba iande atsalde guziz.

Ba dianzan! launak bagintin guk e, baakizu jiten zirenak, emen bereko neskak, ta Aldudekoak e ba zomait, ta gero hara hekin eta bazen ba gaztiak jiten ziren, maite ginin ba dantzale. Bazakin ba zure aitatxi zenak e, Ferranddok.

Ba gootik, launa ginin, bi urte ni baino gaztiau zen ura, usteut, “*de 21? donc un an*” urteat ordion ni baino gaztia, launak ginen bai bakizu berdin zen guetako urtea ez ginin kasuik eiten e ta gero, beti amen ziren tzinkoenian.

Bestaeilia, ez edalia, ez zen edalia eta maite ziin beti kantuz, ta koplaka, geo batzüitan ixilazten ginin hainberzetaanoko koplak iten zazkaun. Batzüitan asiak ginen ta erten ginakon ixiltzeko. Giza gaizoa ba ba, ba maite ginin ba.

Ba izaiten ziren ta gero hori artzen zen Mattin edo harekin, biak, ba biak irrinazten zuten e biak hasten zirelaik, iziarri pollit ziren, iziarri pollit.